

Herririk Herri | 3

Kirol taldeen partaidetza bultzatu gura dute Mugikortasunaren Astean



Kultura | 11

Ismael Iglesias: "Artea harreman komertziala baino askoz gehiago da"

Gehigarria Eskolara buelta



DURANGALDEA | 2

Ardi jaia, artzaintzaren balioa erakutsi guran



Gaurtik domekara artzaintzagaz lotutako ekitaldiak antolatuko dituzte Abadiñon, Durangon eta Atxondon

KIROLA | 16

Olazar txapelketak 25. urteurrena ospatuko du

Eguenean Olazar pilota txapelketako 25. aldia hasiko da afizionatu mailako pillotaririk onenekin. Urteurrena ospatzeko, ikus-entzunezko bat prestatzen ari dira.



ABADIÑO | 6

Gerediaga-lurreta tartea doan izatea eskatu du Bilduk

A8 autobidean Gerediaga-lurreta arteko zatia debalde izatea eskatu dute Abadiñoko, Atxondoko, Mallabiko, Berrizko, Zaldibarko eta Elorrioko Bilduren ordezkariak. Eskera mozio bidez aurkeztuko dute udal horietan.



Sagasta auzoa • Anbe Goikoa
48220 ABADIÑO • Bizkaia
Tel.: 629 143 944 - IBAI URIEN

APAINGARRIA ETA INDUSTRIALA

- Fatxadetarako proiektu bereziak (inpermeabilizazioak, barnizatuak, ...)
- Era guztietako barne eta kanpoko dekorazioak (lokalak, tabernak, etxebizitzak, ...)

Durango | 3

laz baino 166 bisitari gehiago joan dira Turismo Bulegora

Abadiño | 6

Irailaren 21ean zabalduko dute Matienako posta bulego berria

Otxandio | 2

Guraso elkarteak harrera gela antolatu du Mainondon

Zaldibar | 4

Euskara biziberritzeko plana batzar irekietan egingo dute

HERRIRIK HERRI >

f Anboto Komunikabideak
@anboto

DURANGALDEA

Artzaintzaren balioa ikusgai II. Ardi Jaian

Astebururako, artzaintzagaz lotutako egitaraua eratu dute Durangon, Abadiñon eta Atxondon

Barikutik domekara arte Ardi Jaia bigarren edizioa ospatuko dute Durangon, Abadiñon eta Atxondon. Gerediaga, Urkiola Landa Garapena eta +Dendak elkarteek bultzatu dute, eta artzaintzagaz lotutako egitaraua eratu dute. Atxondoko udaletxean martitzenean egindako prentsaurrekoan aurkeztu zituzten ekintzak. Patxi Solana artzaina Abadiñoko ekintzak prestatzen ibili da, eta helburuetako bat azaldu zuen: "Artzaintza eta baserri munduak Euskal Herrian daukan garrantzia erakutsi gura dugu". Juan Mari Totorikak, Urkiola Landa Garapeneko ordezkariak, esan zuen artzainek ardiekin egindako lanari eskerrak dagoela dagoen paisaia Euskal Herrian. Prestatu duten egitarauak ez dauka adin

mugarik, baina gazteei begira lan berezia egin gura izan dute. Horretarako, Abadiño eta Durangoko ikastetxeetan tailer eta berbaldiak egingo dituzte.

Artzain txakur onenak

Ardi Jaia baita, tradizio handiko ekitaldia burutuko dute: Euskal Herriko artzain txakur txapelketa. 1967tik Gerediagak antolatzen du, Durangaldean. Domeka goizean, Axpen izango da txapelketa horren 46. edizioa. Asteleheneko agerraldian, Oihana Azkorbebeitia Gerediagako kideak eman zuen lehiaren berri. Bizkaia, Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Iparraldeko txapeldun eta azpitxapeldunek eta iazko irabazle nagusiak ere parte hartuko dute. Onenak egongo dira, beraz. 11:00etan hasiko da.

Aurretik, 10:00etan, artzainen ibilbide gidatua egingo dute Asuntze mendi taldearen laguntzagaz. Eguerdian Eusko Label produktuen dastaketagaz jarraitu, eta bazkaria eginda amaituko dute jaialdia. ■ M. Onaindia

Abadiño eta Durangoko ikastetxeetan tailer eta berbaldiak egingo dituzte



Ezkerretik hasita, Azkorbebeitia, Oarbeaskoa, Totorika eta Solana.

Kultura eta gastronomiaz beteriko ekintza sorta

Ofizialki Abadiñon hasiko da, gaur, Ardi Jaia egitaraua. Goizean tailerrak eta berbaldiak egingo dituzte Traña-Matienako institutuan, eta arratsaldean askotariko erakusketa ipiniko dute frontoian. Artile mozketaren erakustaldia ere eskainiko dute 18:30ean. Baita arratsalderako ere, baina Durangon, gazta dastaketa eratu dute Kurutzia

Hotelean. 18:00etan hasiko da, azaldu dutenez.

Bihar Durangon jarraituko du egitarauak. Goizean Durangaldeko gaztaren azoka ezarriko dute udaletxe atarian. Eguerdian, trashumantzia gidatuko du Krispin Arregi garaitarrak Durangoko kaleetatik. Antzina, urtarotara egokitzeko artaldea larre hobegoetara eroaten zuten

artzainek. Artaldeak abelbide naturaletatik joaten ziren, eta halako bide bat Durangotik pasatzen zen. Horren antzezpena izango da biharkoa.

Produktu berria dakarte

Artzaintza sustatzeaz gainera, komertzioa ere bultzatu gura dute. +Dendak elkartearen ize-nean harburgesa jana lako ekitaldiak aurkeztu zituen Guillermo Oarbeaskoak. *Betizu meat-burger* produktu berria aurkeztuko dute Andra Marin, 18:00etatik aurrera. ■ M. O.

Hildako mendizaleak oroitzeko eguna domeka honetan

Mendizaleak Betsaidera igoko dira domeka honetan mendi istripuz hil diren mendizaleak gogoratze-ko Oroimen Egunean. Elorriotik igotzeko Erdella Mendizale Taldeak 08:30ean ipini du hitzordua plazan, eta Atxondon Asuntze Mendi Klubak ordu bererako egin du deia, Arrazolako plazan.

Elorriotik igotzeko Erdellak 08:30ean ipini du hitzordua plazan; Asuntzek ordu bererako egin du deia Arrazolako plazan

Aurten Euskal Herriko hamar mendizale hil dira mendi istripuz. Eurek oroitzeko ekitaldiak 10:30ean hasiko dira Betsaiden, txistu eta txalaparta soinuagaz. 11:00etan, meza edukiko dute, eta gero Euskal Mendizale Federazioaren lehendakariaren berbaldia. Amaitzeko, dantzariak eta txistulariak ariko dira.

OTXANDIO

Guraso elkarteak harrera gela eratuko du Mainondon

Seme-alabak zaintzaile batez utzi ahalko dituzte eskolako klaseak hasi baino goizago

Lanagatik edo bestelako konpromisoengatik goizean goiz ibili behar duten gurasoei begira, Mainondo guraso elkarteak harrera zerbitzua sortu dute Mainon-

do herri eskolan. Horrela, urriaren 1etik aurrera, klaseak hasi aurretik, 07:30etik 09:00etara, gurasoek eskolako harrera gelan utzi ahalko dituzte seme-alabak

Basobisitan irtengo dute domekan mugarrietatik

Iraileko hirugarren domekan ohi duten legez Otxandioko mugarrak bisitatuko dituzte

Urteroko ohiturari eutsiz, domekan Basobisitan irtengo dute goizeko 08:00etan plazan batuko diren herritarrek eta udal agintariak. Herriko mugarrak bisitatu-ko dituzte.

Plazatik irtenda, Gomilazera heltzean bi taldetan banatuko dira

zaintzaile baten ardurapean. Mainondo guraso elkarteak gurasoek eskatuta sortu du zerbitzua guraso elkarteak. Oraingoan, sei umek erabiliko dute eta zerbitzuak eragindako gastuen kargu sei ume horien gurasoak egingo dira. Zerbitzua herri eskolako ikasle guztien gurasoei irekita dago. Interesatuak nahikoa dute 24 ordu lehenago zaintzaileari abisatzea. Guraso horiek zerbitzua erabiltzen duten egun bakoitzeko ordainduko dute. ■ J.D.

Plazatik irtenda, Gomilazera heltzean bi taldetan banatuko dira. Talde bat Aramaiogaz muga egiten duen eremurantz joango da. Eremu hartan dagoen lur zati baten eskuduntzak eztabaida eragin izan du herri bien artean. Otxandiarrek eta aramaioarrek, biek diote euren dela. Ohi legez, aizkoragaz zonalde horretako zuhaitzak markatuko dituzte, lur zati hori Otxandiokoa dela adierazteko. Ostean, hamaiketako egin eta Anteparaluzetik herrigunera bueltatuko dira. ■ J.D.

MAÑARIA

Ehiza postuen lehenengo zozketa, 21ean egingo dute

Saibi-Iturriotz eta Bitañoko ehiza postuetarako zozketak egingo dituzte Mañariko udaletxean. Lehenengo, irailaren 21ean izango da, 22:30ean. Aurreko egunerako aurkeztu beharko dituzte eskaerak interesdunek. Adjudikazio horrek urrirako balioko du. Mugarra ehiza taldeko bazkideen zozketa hilaren 24an egingo dute, 19:00etan. Azaroan postuak nork erabiliko dituen, ostera, urriaren 5ean eta 22an erabakiko dute.

Bestalde, ehiza kontrolaturako baimenak ere zozkatuko dituzte udaletxean. Urriko urtirerara bitartekoak izango dira. Urriaren 4an eta 25ean, azaroaren 22an eta abenduaren 20an egingo dituzte zozketak. Guztiak arratsaldeko 19:00etan hasiko dira, antolatzaileek azaldu dutenez. ■ M. O.



DURANGO

Turismo bulegora iaz baino 166 lagun gehiago joan dira

2.429 bisitari jaso ditu aurtengo udan turismo bulegoak; Espainiatik etorri dira turista gehienak

Bisitari kopuruak gora egin du Durangon. Ekaina, uztaila eta abuztuko datuak hartu dituzte kontutan neurketa egiteko. 2.429 bisitari jaso ditu aurtengo udan turismo bulegoak. Iazko kopurua gaz alderatuta 166 lagun gehiago joan dira bulegora, udal ordezkariak ohar bidez esan dutenez. "Krisiegoera dela-eta, igoera hau positibotzat ematen dugu". Espainiatik etorri dira bisitari gehienak: 640. Horien baitan, madrildarrena izan da kopuru handiena: 226. Bestalde, Herrialde Katalanetako bisitariak ere asko izan dira: 382.

Jatorri urrunenen artean, AEBetatik 38 etorri dira eta Japoniatik 17.

Esanguratsua da turismo bulegoak 560 durangarren bisita jaso duela. Kanpoko lekuen informazioa eskatu du gehiengoak.

Audiogida zerbitzua bisitarietako askok erabili ei dute. Mar txan ipini zenetik, 446 lagunek ezagutu dute Durango tresna horregaz. ■ M.O.

Jatorri urrunenen artean, AEBetatik 38 etorri dira eta Japoniatik 17

PSE-EEK futbol zelai berriko inbertsioa kritikatu du

Durangoko PSE-EEK Tabiran egingo den Futbol 7ko zelai berriko inbertsioa kritikatu du. Sozialisten arabera, EAJren gobernu taldeak 300.000 euro bideratu ditu proiekturako. Pilar Rios PSE-EEKo bozeroaleak jeltzaleen aurka egin du: "Abuztuan agindu dute obra, oposizioko alderdiak informatu

eta kontsultatu barik". Sozialisten ustez, udala finantza egoera txarrean dagoen unean hartu du erabakia gobernu taldeak. "Inbertsio hau 2006an planteatu zen, egoera ekonomikoa oso bestelakoa zenean". Gaia EAJren kudeaketaz berba egiteko aprobetxatu du Riosek. "EAJk txarto kudeatzen du, eta ez du mahai gainean ipintzen Durangoko beharrian aklehetsiko dituen proposamenik".

Sozialistak esan duenez, eskola kiroleko ordezkariekin batu dira, eta zelai faltagatik kexatu zaizkien arren, egungo baliabideak aprobetxatzeko eskatu ei dute. ■ M.O.

Anbulategiko beharginen protesta egingo dute astero

Espainiako Gobernuak egindako murrizketak kritikatzeko, beltzez jantziko dira beharginak

Barikuro protesta egingo dute anbulategian, murrizketen kontra egiteko. Espainiako Gobernuak eremu publikoan soldadak jaitzea, abenduko aparteko saria kentzea eta ordezkapen zerrenda

murriztea kritikatu dute. Joan zen barikuan irten zuten lehenengo zkalera, beltzez jantzita. Beste leku batzuetan hasitako *Bariku beltza* dinamikagaz bat egingo dute.

ELAk manifestazioa

Bestalde, joan zen barikuan, ELA sindikatuak manifestazioa egin zuen Durangon. 180 militante batu ziren, murrizketak salatu eta irailaren 26ko grebara deitzeko. ■ M.O.

Beste leku batzuetan hasitako 'Bariku beltza' dinamikagaz bat egingo dute



Joan zen barikuan, beharginak, anbulategi aurrean.



Hainbat gai landuko dituzte domekatik aurrera; tartean, bizikletaren erabilera bultzatuko dute.

Zelan osasuntsuago mugitu berbagai, domekatik aurrera

Mugikortasun Iraunkorraren Asterako, gizarte eta kirol elkarten partaidetza handituko dute

Herri mailako mugikortasun iraunkorra eta kalitatezkoa bultzatzea. Helburu horiez arri diote domeka honetan hasiko den Mugikortasun Iraunkorraren Asteari. Durangoko Udalak eta IK4-Azterlanek antolatu dute egitaraua. Diotenez, aurten gizarte eta kirol elkarten partaidetza handituko da. Ondorioz, parte-hartze orokorra handitzea ere itxaroten dute. Herri-tar guztiak gonbidatu dituzte ekitaldietara.

Aste osoan zehar burutuko dituzte ekintzak. Edozelan ere, sustatzaileen arabera, egun garrantzitsuena irailaren 22koa izango da: Auto Bako Eguna. Zumalakarregi kalea eta Montevideo etorbidea itxita egongo dira trafikoa erantzat, oinezkoek eta bizikletariak erabiltzeko. Goizeko 10:00etan bizikleta martxa aterako da Ezkurditik, eta 11:00etatik aurrera ibilgailu elektriko eta hibridoak erakusketa ipiniko dute Ezkurdin bertan. ■ M.Onaindia

EGITARAUA

- Irailak 16**
08:00. Neberondora irteera. Aire kalitatearen azterketa.
12:00. Marrazki tailerra, Andra Marin.
13:00. EMJAren aurkezpen herrikoia.
- Irailak 17**
10:00. EMJAren aurkezpen ofiziala.
- Irailak 18**
18:00. Bizikleten konponketa tailerra Landakon.
- Irailak 19 - 20**
08:30. Ikastetxera bizikletan.
17:00. Bizikleta ginkana Andra Marin.
- Irailak 21**
16:00. Gidatze eraginkorren ikastaroa.
17:00. Autoa elkarbanatzea eta Ekoefizientzia azoka.
- Irailak 22**
Auto Bako Eguna.

Maristak bisitatu dituzte Argoitia eta Agirre futbolari ohiek

Lan-taldearen baloreak eta arazoei aurre egiteko metodologia lehenengo egunetik ipini dituzte mar txan Maristak ikastetxean. Baina, era ludikoan egin dute, proben bidez. Jose Mari Argoitia eta Koldo Agirre Athleticeko jokalaririk ohiakegon ziren astelehenean sariak banatzen.

Argotia eta Agirreraren bisitaren harira, gaur egungo Bilborentzako moduko gabarra bat diseinatu zuten ikasleek.



GALLASTEGI

gallastegiharategiak@euskalnet.net

1955 ean sortua



Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

Zalduasolo, 8
946 827 038
48250 ZALDIBAR

Antso Estegiz, 1
946 812 247
48200 DURANGO

DURANGO

Erosketetan euskara erabiltzea sarituko dute gaurtik aurrera

Komertzioetan, euskara darabiltenen artean tablet-ak zozketatuko dituzte



Kanpainaren sustatzaileak, atzo, Durangoko udaletxean eginiko prentsaurrekoan.

Aparatu elektronikoa opari, euskara erabiltzea saritzeko. Gaurtik aurrera, erosketak egiterakoan euskaraz berba egiteak saria edukiko du Durangon. Hainbat komertzioetan, euskara erabiliz gero, tablet baten zozketan parte hartzeko txartelbat emanango dute. Euskara indartzeko amua izango da tableta. 2013ko iraila bitartean sei zozketa egingo dituzte; lehenengoa azaroaren 1ean izango da. Euskarazko aplikazio-dun I-pad markako tablet bana emanango dute zozketa bakoitzean.

Aurkezpenean emandako datuen arabera, euskararen erabilera Durangon ez da %17ra helitzen. Komertzioan ere erabilera urria da, eta egoera horri buelta eman gura diote. Irabazi asmo bako ITG taldeak antolatuko du *Sale-rosketak be, euskeraz* kanpaina. Hainbat erakunderen babesa dau-

ka, tartean Durangoko Udala eta Berbaro elkartearena. Komertzioetan egitasmoa integratzeko bultzada +Dendakelkateak eman du. ITGren izenean, Eneritz Izak garrantzia handia eman dio administrazioen, elkarten eta komertzioen arteko elkarlanari.

Aitziber Irigoras alkateak gogoratu du aurreko belaunaldiak euskaraz egiten zituztela salerosketak. Euskarari komertzioan arnabide berria emateaz berba egin du: "Eremu hori berreskuratzea oso garrantzitsua da euskararentzat". Komertzioa indartzeko aukera ere izan ahal da, alkateak berak eta +Dendak elkarteak Santiago Reyesek esan dutenez.

Zozketa, hile birik behin

Zozketak hile birik behin egingo dituzte; azaroa, urtarrila, martxo, maiatza, uztaila eta iraileko lehen egunetan izango dira. Zerbaki sarituak jakiteko, www.anboto.org eta www.durangon.com webguneetan kontsultatu ahaliko dute interesdunek. Gaur hasiko dira euskaraz erosten dutenak saritzen. ■ M. Onaindia

2013ko iraila bitartean sei zozketa egingo dituzte; lehenengoa azaroaren 1ean

ZALDIBAR

Euskara Biziberritzeko plana batzar irekietan egingo dute

Irailaren 20rako antolatu dute lehen batzarra; herritar guztiei egin diete bertaratzeko gonbitea

Datozen lau urteetan udalak garatuko duen Euskara Biziberritzeko plangintzaren diseinuan, herritar guztiek parte hartzeko deia egin du udalak. Euskararen normalizazioan udalak datozen urteetan egingo duen lana finkatzeko ekarpenak egitera gonbidatu dituzte zaldibartar guztiak.

Azaldu dutenez, "zaldibartar guztien bizipen, proposamen eta hausnarketak lagungarriak izanongo dira" lan-mahaian horretan: "Gazteak eta nagusiak, langileak eta langabetuak, kirolariak, musi-

kariak, gurasoak, dendariak, arotzak, mekanikoak, zaintzaileak...". Denak gonbidatu dituzte.

Batzar birako hitzordua zabaldu du udalak. Irailaren 20an eta urriaren 4an izango dira, 18:30etik 20:30era, eta liburutegi zaharrea batuko dira.

Elhuyar Aholularitza enpresak jardungo du prozesua dinamizatzeko beharretan. Parte hartzeko interesa dutenek eguen@zaldibar.org helbidera idazteko edo 946827016 zenbakira deitzeko eskatu du udalak. ■ I.E.

GARAI

Auzoko dantzarien saioa, Santa Katalinako jaian

Domekan egingo dute Santa Katalina ermitako jaia; meza, dantza eta luntxa prestatu dituzte

Domeka honetan ospatuko dute Santa Katalina ermitako jaia. Aspaldikoa da jaia baina, hainbat urteko hutsunearen ostean, dozena bat urte dira berreskuratu zutela. Tradizioak dioenez, auzoko dantzariak egin behar dute dantza saioa egun honetan.

Tradizioak dioenez, auzoko dantzariak egin behar dute dantza saioa egun honetan

Herrigunean barik, ermitan ospatuko da domekako meza nagusia. Mezaren ostean etorriko da dantza saioa, eta amaitzeko luntxa dastatuko dute bertaraten direnek.

Ikastaro berria Umerrin

Garaiko Umerrin elkarteak ikastaro berria antolatu du irailaren 21 eta 22rako. Guraso eta hezitzaileen eta haurren arteko elkar ulertzea landuko dute. Astelehenera arte eman ahal da izena, 675 704 031 zenbakira deituta. ■ M.O.

IZURTZA

Udala ez da batuko Udal Gaztedi planera

Bizkaiko Foru Aldundiak gazteen arloko politika bateratuak eta integralak adosteko Udal Gaztedi koordinazio gunea sortu du. Izurtzako EAJK mozio bat aurkeztu zuen azkenengo udalbatzarrean, eta udalak plan horretan parte hartzeko eskatu zuen. Baina, gobernu taldeko zinegotziek (Bildu) ezetz bozkatu zuten eta mozioa ez zen onartu. EAJko Oskar Zarrabeitia zinegotzia aurkeztu zuen mozioak jasotzen duenez, Udal Gaztedi izeneko gune horrek "gazte arloko politikak dinamizatzeko tresna eta eztaibadagunea izan gura du". ■ J. D.

Emakumezkoen zuzenduriko autodefentsa ikastaroa, 29an

Neska gazteei eta emakumeen zuzenduriko ikastaro bat antolatu du udalak: Autodefentsa Feminista. Biktimismotik aldendu eta egoera arriskutsuei norberak aurre egiteko gaitasuna landuko dute saioetan. Horretarako, alderdi fisikoak ezezik, arlo psikologikoa eta teorikoagoa ere jorratuko dituzte.

Irailaren 19ra arte eman ahaliko da izena ikastaroan parte hartzeko. Irailaren 29an izango da ikastaroa, goizea eta arratsaldean (10:00etatik 14:00etara, eta 15:30etatik 19:30etara), eta Solobarriako gimnasioan batuko dira andrak, teoria eta praktika lantzeko. ■ I.E.

MALLABIA

Betzuenerako landabidea konponduko du udalak

lazko azaroan botatako eurite gogorrek kalteak eragin zituzten; udazkenean hasiko dira obrek

Betzuenerako baserrira doan landa bidea konpontzeko diru-laguntza jaso du udalak. Bizkaiko Foru Aldundiak 95.753 euroko diru-laguntza eman dio udalari bidea konpon dezan. Urre S.A. enpresari esleitu diote lanak egiteko ardura. 2011ko azaroaren 5eko eta

"Ur kaptazioetara heltzeko bide bakarra denez, oso garrantzitsua da konpontzea"

6ko euriteek kalte handiak eragin zituzten Betzuen baserrira heltzen den bidean. Mila Mondragon alkateak bide honen garrantzia azpimarratu du: "Inguru horretan lur-jausiak egoten dira eta Mallabia eta Berrizko ur kaptazioetara heltzeko bide bakarra denez, oso garrantzitsua da bidea konpontzea".

Obrak laster hasiko direla aurreikusiko du udalak. Alkateak azaldu duenez, "udazkenean obrei ekitea da asmoa". ■ J.G.

ATXONDO

Rock kontzertu bi eskainiko dituzte gaur igerilekuan

Gaur, 22:30etik aurrera Trastorno eta B.E.K taldeen kontzertuak daude igerilekuko karpan


Atxondoko igerilekuko tabernak rock kontzertu bi antolatu ditu gaurko, 22:30erako, igerilekuan egokitutako karpan: Mañariko Trastorno eta Durangoko BEK (Beti Etxetik Kanpora) taldeek joko dute zuzenean. Sarrera doakoa izango da.

Tabernako kideek hainbat kontzertu eta ekimen prestatu dituzte uda osoan zehar: hainbat gairen inguruko bideo emanaldiak, erromeriak, kontzertu akustikoak... Baina gaurkoa izango da

antolatu duten lehenengo rock kontzertua. Orain arte antolatutako ekitaldietan giro ona sortu dela diote tabernako arduradunek, eta pozik daude erantzunagaz. Oro har, abuztu eguzkitsua izan dela eta igerilekuan jende asko ibili dela diote. ■ J. D.

Orain arteko ekitaldietan giro ona sortu dela diote tabernako arduradunek

OSASUN GIDA



PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADINO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

PODOLOGIA



Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA
Ermodo, 2- 1. eskuma • DURANGO
tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

asteleheneretik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOIA
Kiroprodia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILIZAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoak, txisari
ezin eusteak, traumatologia, kirola, trafikoko istripua,
drainatze linfatikoa (masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

ESTETIKA



www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO
tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOIA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psicologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

ABADIÑO

Jabekuntza Eskola ipiniko dute abian emakumeentzako, urrian

Bost ikastaro antolatu dituzte, "begirada kritikoa" lantzeko asmoz



Jose Luis Navarro alkatea eta Yanire Moreno zinegotzia, egitaraua aurkezten.

Herriko emakumeei begira, formaziorako eta topaketarako espazio bat eskaitzeko helburuagaz, Abadiñoko Udalaren Berdintasun sailak Jabekuntza Eskola sortu du.

Urritik abendura arte, bost gairen inguruko ikastaroak eskainiko dituzte, gai bakoitzari dagokion aditu batek gidatuta. Yanire Moreno Berdintasun zinegotziak aurreratu ditu ikastaroen izenburuak: *Emakumeendako Coaching; Gure gorputza ezagutzen; Dotore zahartu; Zuri zer kontatu dizute feminismoaz?*, eta *Neskentzako autodefentsa*.

Ikastaro, tailer eta ekintzen bitartez, "begirada kritikoa landu gura dugu" azaldu dute aurkezpenean, "emakumeek eta feminismoak gure errealitate pertsonal, sozial eta politikari egin dioten ekarpena ikusi eta ikustarazteko".


Zelaietako Txaporta kultur etxean eta Traña-Matienako Errotan izango dira Jabekuntza Eskolaren hitzorduak. Ekimena egonkortu ahala Jabekuntza Eskolak espazio fisiko finko bat izatea gura dute udal ordezkariak, aurkezpenean egunean Jose Luis Navarro alkateak azaldu duenez: "Emakumeek erreferentziazko leku hori

beti aukeran izan dezaten. "Momentuz udalak ez dauka espazio hori eskaintzeko aukerarik, baina espero dugu etorkizunean lokal bat utzi ahal izatea helburu horretarako", esan du alkateak.

Aurkezpen publikoa, 20an Udalaren webgunean, Errota kultur etxean edo Mediatekan eskuragarri daude Jabekuntza Eskolaren izen-emateko orriak. Ikastaroen gaineko aurkezpen publikoa irailaren 20an egingo dute, Errota kultur etxean. Inma Merino egongo da aurkezpenean; ikastaroetako baten irakasle da bera. ■ I. E.

A8ko peajeari buruzko mozioa aurkeztuko dute hainbat udaletan

Gerediaga eta Iurreta arteko tartea erabiltzaile guztientzat debalde izatea eskatuko du Bilduk



Durangaldeko sei herritako Bilduko ordezkarien agerraldia.

A8 autobidearen Iurreta-Gerediaga tartea erabiltzaile guztientzat musutruk izatea eskatzeko mozioak aurkeztuko ditu Bilduk, irailean, Durangaldeko hainbat udaletan. Horixe iragartzeko batu ziren astelehenean Traña-Matienako kultur etxean, Abadiño, Zaldibar, Atxondo, Mallabia, Berriz eta Elorrioko udaletako Bilduren ordezkariak. Hain justu, udalhorietan aurkeztuko dute mozioa.

Aitor Azueta Abadiñoko zinegotziak azaldu duenez, A8aren Iurreta-Gerediaga errepide tarte horretan ezarri duten tarifa sistema ez dela egokia uste du Bilduk. Iurreta-Gerediaga tartea bakarrik burutzen duen erabiltzailearentzat autobidea doakoa izan arren, "erabiltzaile gehienek Bilbo aldeira joateko abiapuntutzat hartzen dute Gerediaga", nabarmendu dute prentsaurrekoan. "Gure herrietako biztanleak ekonomiki kaltetuak izaten ari dira".

Gainera, ordainsari berriak N-634 errepideko trafikoa murriztu beharrean, "Iurretako biribilgunean trafikoa pilotzea", dakarrela kritikatu dute.

Onartu dute Berrizen Eguazteneko udalbatzarrean aurkeztu zuen Berrizko Bilduk mozioa. PSEko eta Bilduko zinegotziek bozkatu zuten eskakizunaren alde, eta kontra EAJk. ■ I. E.

Barikutik aurrera postariak Traña-Matienako bulegoan

Arduradunek azaldu dutenez, irailaren 21etik aurrera hasiko dira bulego berriko zerbitzuagaz

Azken bost hileetan *Correos* zerbitzuaren Traña-Matienako lokal berria atontzen jardun dute langileek, eta datorren astean argiteriko lanak amaitzen dituztenean zabalduko dute bulegoa.

Posta zerbitzuaren Bizkaiko arduradunek azaldu dutenez, egunean emango dute Zelaieta auzotik Traña-Matienako bulego berriko lekualdatzea amaitu-

tzat. Datorren barikutik aurrera hasiko dira, beraz, *Correos*-en banaketa eta bezeroaren arretarako zerbitzuak egoitza berri horretatik eskaintzen.

Oinezkoentzako nahiz autoentzako irisgarritasun handiagoko 235 metro koadroko lokal da *Correos*-en Abadiñoko bulego berria hartuko duena, eta Zelaietako bulego zaharreko zerbitzu berak eskainiko dituzte lokal berrian ere. Arduradunek azaldu dutenez, "orain arteko zerbitzuak mantentzea" baina "abadiñar gehienentzat eskurago" eskaintzea da bulego aldaketarekin lortu gura dutena. ■ I. E.

Oinezko nahiz autoentzako irisgarritasun handiagoko 235 metro koadroko lokal da

Jolasleku berria atonduko dute Errota kultur etxearen alboan

Gobernu taldeak (Independienteak) jakitera eman duenez, Traña-Matienako Errota kultur etxearen atzealdeko parkean prestatuko dute umeentzako jolasleku berria, eta dagoeneko badaudenak konponduko dituzte hil honetan. Izan ere, herriko txintxaun guztiak garbitu eta txukun-

duko dituztela adierazi du gobernu taldeak. "Haur jolasguneak sozializaziorako eta aisialdirako oso garrantzitsuak dira eta egoera onean eduki behar ditugu", azpimarratu du Jose Luis Navarro alkateak.

Lan horiek guztiak egiteko 50.000 euroko diru-atala dauka Abadiñoko udalak 2012ko aurrekontuan jasota. ■ I. E.

Herriko txintxaun guztiak garbitu eta txukunduko dituztela adierazi dute

ELORRIO

Ludotekaren ikasturte berrirako, izena eman ahal da dagoeneko

Ludoteka, partaidetza eta integrazioa indartuko dituen gunea izatea gura dute antolatzaileek

Urriaren 8an zabalduko ditu ateak Elorrioko Ludotekak. 2012-2013 ikasturteari ekin ahal izateko, hasi da dagoeneko izen-ematea. Irailaren 28ra arte dago inskribatzeko aukera, 90 euroren truke, udal txeko erregistroan. Bi mailatan

ren helburua. Heziketa, gainera, balore hauek landuz: errespetua, elkartasuna, lankidetzeta, erantzukizuna, autonomia eta ahalmen kritikoa. Ekimenaren bidez, aisialdian euskararen erabilera sustatzea ere gura dute antolatzaileek.

Ekimenaren bidez, aisialdian euskararen erabilera sustatzea ere gura dute antolatzaileek

banatuko dituzte umeak gero: hiru eta zazpi urte artekoak, eta zortzi eta hamabi artekoak. Azaldu dutenez, lehenengo taldean 48 ume hartuko dituzte gehienez, eta bigarrenean hamabost.

Haurrei jolasteko eta hartu-emanetarako gune egoki eta hezi-garriak eskaintzea da Ludoteka-

Protagonismoa, haurrari Jolas librea oinarrituko da metodologia, protagonismoa haurrari eman gura diote eta. Edozelan ere, astean behin metodologia gidatuz egingo dute lan. Partaidetza eta integrazioa indartuko dituen gunea izatea gura dute.

Hiru eta hamabi urte artekoetan, hamabi ume talde bakoitzerako begirale bat egongo da; nagusien taldean bakarra egongo da. Elorrioren ikasten duen edozein ume parte hartu ahal du hastear dagoen Ludotekan. ■ M.O.



Durungaldean labor

Nekazaritza Ekologikoaren II. Azoka, zapatu honetan

Durangoko Andra Mariko elizpean produktu ekologikoen azoka atonduko du Marisatsa nekazaritza ekologikoaren ekoizle eta kontsumitzaile taldeak. Zapatu goizean izango da azoka eta hamalau-hamasei ekoizle egongo dira euren produktuak saltzen. Ortuarietz gainera, gazta, ogia, hazi ekologikoak eta txakolina egongo dira, besteak beste, eta Marisatsa taldeak berak ere postua ipiniko du.

Zaldibarren familientzako irakurketa kluba hasiko da

Gurasoentzako eta hiru eta zortzi urte bitarteko umeentzako irakurketa saio bereziak hasiko dituzte Zaldibarko liburutegian. Istorioak eta ipuinak ezagutzeko umeen gogoia indartu gura dute eta horretarako ipuin kontaketa eta ariketak edukiko dituzte. Gurasoei irakurzaletasuna lantzeko ideia batzuk emango dizkiete. Irailean eman behar da izena liburutegian.

Agenda 21, hilaren 18an Durangon

Durangon irailaren 18an Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana berri-kusteko azterketarako partaidetza foroa egingo dute. Gizarte eta ingurumenaren diagnostikoa ikusi, eta egoeraren ahultasunak, mehatxuak, indarrak eta aukerak aztertuko dituzte foroan. 19:00etan, Elkartegian.

Baseri hondakin bilketa egingo dute

Urkiola Landa Garapena elkarteak antolatuta, hondakin fitosanitarioak eta zoosanitarioak batuko dituzte DIBA kooperatibaren egoitzan, irailaren 17an eta 18an. Plastikoen (negutegien eta belar-siloen plastikoen) bilketa izena emateko egunak urriaren 15etik 19ra izango dira.

BERRIZ

Lekuko garrantzia nabarmendu dute Oroimen Egunean

Francoren estatu kolpearen ostean gertatutakoa gogoratzeko herri antzerkia egingo dute domekan

Martitzenean herritar asko batu ziren oroimen ekitaldian, Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak udalaren babesagaz antolatuta. Frankismoaren biktimei egindako omenaldian gerra bizi izan zuten hainbat herritar eta errepresaliaturen senideak egon ziren.

Francoren estatu kolpearen ostean, 1937ko irailaren 11n, frankistek fusilatutako Felipe Urriaga alkatea, Jose Agirre eta errepresaliatu guztiak gogoan hartu zituzten Felipe Urriaga plazan. Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak eta Orland Isoird alkateak hartu zuten lehenengo berba. Ostean Xabier Amurizak bertso sorta kantatu zuen, eta gero lore eskaintza egin zuten.

Ekitaldia eta gero, kultur etxea bete zuten herritarrek. Honezkerro hilda dauden hainbat herritarren testigantzarekin elkarteak osatutako bideoa ikusi zuten, eta

lekuotzak batzearen garrantzia nabarmendu. Domekan Berrizko gazteek herri antzerkia eskainiko dute. Estatu kolpearen osteko giroa irudikatuko dute udaletxeko parkean,



Martitzenean 75 urte bete ziren Felipe Urriaga eta beste hainbat fusilatu zituztenetik.

lekuotzak batzearen garrantzia nabarmendu.

Domekan Berrizko gazteek herri antzerkia eskainiko dute. Estatu kolpearen osteko giroa irudikatuko dute udaletxeko parkean,

Antzerkia prestatzen jardun dute Txintxaun Kolektiboak, gaztetxeak, Iremiñe taldeak eta Pagotxa taldeak

13:00etatik aurrera. Antzerkia prestatzen jardun dute Txintxaun Kolektiboak, gaztetxeak, Iremiñe dantza taldeak eta Pagotxa kultur eta aisialdi taldeak. ■ I.E./A.U.

Euskara ikasleentzako izen-emate epea hasi da

Euskaltegiko matrikulazioa diruz laguntzeko 15.000 euro bideratuko ditu Berrizko Udalak

Ikasturte berriagaz batera, hasi da euskaltegian eta euskara praktikatzeko Berbalagun egitasmoan izena emateko epea. Irailaren 24ra arte eman ahalko da izena, eta hainbat ordutegi eta mailatako ikastaroak eskainiko dituzte. Esaterako, eguerdietan gurasoei zuzendutako taldeak sortzeko aukera dago.

Euskara ikasi gura duten herritarrek, Berrizko Udalaren dirulaguntza jaso ahalko dute. Udalak 15.000 euro gorde ditu

dirulaguntza horietarako, eta gutxienezko asistentzia hartzen dute kontuan: eskolen % 80ra joanez gero, ikasleari osorik ordainduko dio matrikula udalak.

Berrizburuko ikastaroak

Kiroldegiko ikastaroak ere laster hasiko dira. Irailaren 17ra arte eman daiteke izena igerilekuko eta gimnasioko kurtsoetan. Lekuak mugatuak dira eta zozketa bidez erabakiko dira, irailaren 18an. ■ A. U.

IURRETA

12.095 euro hezkuntza gastuei aurre egiteko

Udalak 270 familiari eman die diru laguntza

2011-2012 ikasturtean eskolatutako seme-alaben gastu orokorrak ordaintzeko 12.095 euro banatu ditu udalak Iurretako familien artean. Iñaki Totorikaguena alkateak esan duenez, 287 eskari izan dituzte eta 270 onartu dituzte.

Diru laguntzak orokorrak izan dira, eta banatutako laguntza kopurua seme-alaben adinaren arabera izan da: bi urtera arte 100 euro; hiru urtetik bos-

tera 20 euro; sei urtetik bederatzira 30 euro; hamar urtetik hamabira 45 euro; eta, hamahiru urtetik hamasei urtera 75 euro.

2011. urtean 236 eskaera egon ziren (221 onartu ziren), eta 9.640 euro banatu. Aurten, 2.455 euro gehiago banatu dituzte. Alkateak dioenez, "ikasmaterialetan BEZA igo den honetan, familiek jaso dezaketen edozein laguntza da ondoetorria". ■ A. B.

Herrira Eguna antolatu dute zaturako

Herriko preso eta iheslarien egoeraren berri emango dute bihar, Herrira Egunean. *Pausoz pauso, etxetik etxera!* lelopean, "sorprezaz beteriko ibilalditxoa" egingo dute 11:00etan, eta 12:30ean ekitaldia. 13:00etan, kantu poteoa egongo da, eta herri-bazkaria 14:30ean (izena emateko, Gaurgin edo Ibai-Ondon). Arratsaldean, Kimuakekin umeentzako jokuak izango dituzte; erromeria ere bai Txomin Bedarrak taldeagaz. ■ A. B.

gremioen koordinazioa

urriaga

Bainugelarako komun ontziak eta berogailuak
azulejo, zoladura, teila, zeramika, hormigoi
erakusketa, salmenta eta ipintzea

Solaguren kalea, 3 - tel./ faxa 94 681 44 74 - MATIENA (Abadiño)

BILBAO ASEGURUAK

Jabier Rueda

Grupo CATALANA OCCIDENTE

Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA
Tfnou. 94 681 43 85

ALBERDI

HARATEGIA HARATEGIA

DURANGO

Bertako okela

Aurretiaz prestatutako janariak

Askatasun etorbidea, 1
TF: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009

Eminencia en la elaboración de Morcillas

Alberdi Harategia

ALBERDI

prekozinatuak

BERBAZ>

“Mugen helburua umeek inteligentzia garatzea da, euren onena ateratzea”

Haurren Arimaren Zainketa proiektuaren sustatzailea da Gutierrez; Elorrion ikastaroa emango du urriaren 20tik aurrera

Cristobal Gutierrezek 31 urte daramatza helduekin formazio lanetan eta hamazortzi urte familien eta haurtzaroaren zaintzan. Bere emaztea zenarekin, aitzindaria izan zen 1995. urtean Kataluniako lehen bi eskola libreak sortzen eta zuzentzen. Gaur egun, bere ardura umeak eta familiak zaintzea da, ikastaroak eta hitzaldiak tarteko, eta Haurren Arimaren Zaintzaren (CAI) inguruko proiektu sortzaileak laguntzen ditu.

Haurren hezkuntzari buruzko galderetan sarri agertzen den gaia da mugena (zigorak eta sariak).

Gure haurrekiko mugak, gomendagarriak izateaz gain, osasuntsuak eta beharrezkoak dira beraien hazkuntzarako. Alabaina, helduok muga hauekiko hainbat zehaztasun ahaztu egiten ditugu: gu aspertu edo nekatzea ez litzateke mugak jartzearen arrazoi nagusia izan beharko. Mugen helburua umeek euren inteligentzia garatzea da, inguruarekin harreman-tzeko gaitasuna eta euren onena ateratzea. Limiteak batu egin behar luke, banandu orde. Hau da: azala, esaterako, barrualdearen eta kanpoaldearen artean muga garbia jartzen duen organoa da; bestela, hil egingo ginatke. Hala ere, azalak ez gaitu ingurutik guztiz babes-ten, kanpoaldearekin harremana izaten uzten digu, eta atsegina izateaz gainera, beharrezkoa da arriskurik ba ote dagoen igartzeko, adibidez. Mugak jartzeko ez da nahikoa jarraibide batzuk izatea; mugak momentu aproposenean ipini behar dira, intentsitate egokiagaz eta kanporatu orde, integratuz. Hau guztia, ezinbesteko maitasunaren eskutik.

Mugak ez zaintzeak zer ondorio ditu?

Muga eskasiak mina eragiten du gugan, besteengan eta planetarengan. Ez dakigu pentsamenduei, ikusiezinei, haserrealdiei, ezta beldurrei ere mugarik jartzen, eta horrela igarotzen ditugu gauak lorik egin gabe, norbaitek esan digunaren ondorioz arduratuta, gure buruari min egin arte. Mugen kontu honetan helduok hobetzeko premia daukagu eta gure haurrak hobetze horretarako aukera bat dira, beraien muga faltek gure gabeziak eta nahasketak islatzen dituzte-eta.

Ez dago erantzun errazik...

Horrelako erantzunak ondo hartzen dira, baina elbarritu egiten zaituzte, oztopatu egiten dutelako norberagandik pentsatu eta ekitea. Imajinatu futbol entrenatzaile bat zarela. Entrenatzailearen jarduna ez da bakarrik egin ahal dena edo ezin dena egin esatea. Bestela, edozein izan ahalko litzateke entrenatzaile ona. Futbol entrenatzaile batek jokalaria zaindu beharko lituzke, batez ere ezusteko uneetan jokaldi egokienak ikusi eta sortu ahal



“Mugak jartzeko ez da nahikoa jarraibide batzuk izatea; mugak momentu aproposenean ipini behar dira, intentsitate egokiagaz”

izateko, beraien potentzial eta gaitasunetan konfiantza izaten jakin dezaten. Jokalariak entrenatze horretan, mugak barne daude, baina baita beste ezinbesteko hainbat faktore ere. Argibide logikoak, baina une desegokian ematen dituen entrelatzaileari, azkenean ez zaio jaramonik egiten. Unean uneko, serio zein goxo jartzen ez dakien entrenatzaile batek ezin du egokiro bere lana bete. Entrenatzaileak beharrezko afektua erakusten badu ezin du bere jokalarietatik beraien onena atera. Guraso edo zain-tzaileen lana askoz garrantzitsuagoa, delikatuagoa eta sakonagoa da futbol entrenatzaile batena baino. Bizitza fut-

bol txapelketa bat baino askoz konplexuagoa eta ustekabeagoa da.

Guraso edo zain-tzaileek ere jasaten dute bizitzaren konplexutasun hori.

Bai, eta jarraibideek esana egitea baino zerbait gehiago egitea dagokie, umeen bihotzetara heldu behar dira. Haurrak zaindu behar dituzte, mundu konplexu honetan ekiten eta moldatzen jakin dezaten, eta hau dena norberaren beldur-erak, haserre, ondoezak eta abar uler-tzeko jarrerarekin soilik lor daiteke. Gai-nea daramagun zama horrek askotan ez digu maitasunez aurrera egiten uzten. Bizitzan sakonduta, umeen bihurrike-

Cristobal Gutierrez •

- Eskola libreak sortzen aitzindaria Katalunian
- Informazio gehiago: www.fundacioncai.com

“Helduok nekatzea ez litzateke mugak ipintzearen arrazoi nagusia izan behar”

riak konpontzeaz gainera, gainera pisu handia eta estatusak kenduko ditu zain-tzaileak, eta hainbesteko samintasunez oroitzen duen alaitasuna bereganatu ahal izango du.

Kasu bat: ume txiki bat jatun txarra da eta jatorduetan segituan hasten da jolasten. Zelan jar daiteke praktikan zukesan-dakoa? Janaria eman behar zaio? Jolas egiten utzi?

Lehenik eta behin, haur txikiaren jolaste-ko desioa une horretan benetako beharra den ikusi behar dugu. Horrela bada, jolasten utzi beharko genioke, jolastea, sarri, askoz osasuntsuagoa baita haurra-rentzat, jatea bera baino. Alderantziz, urduri dagoelako jolasten hasten bada, atentzioa bereganatu nahian adibidez, orduan, besotan har dezakezu eta gauza maitagarriak esan. Arreta hori ematen badiozu, bost minutura lasaitu egingo da eta lasaitasunez jan gurako du.

Sarritan ez da astirik edukitzen umeek eskatzen duten guztia emateko.

Bideetan injinerua den lagun bat daukat. Behin autopista bateko zubi bat eraikitzen zebilela bisita egin nion eta, hormigoiak jasan behar zuen prozesuaren garrantziaz hitz egin zidan; presa barik egin beharra zegoen, guztiz egin orduko pisua gainera jaurtitzeko baldin bazitzaion, zubiak behera egingo lukeelako. Haurtzaroa helduaroaren oinarria da, eta denbora behar da oinarri horiek finkatzeko. Horiek dira, azken finean, helduaro-ko bizitza sostengatuko dutenak. Haurra modu horretan zaintzen baldin badugu, nagusia jolastean denean entzuten jakingo du, presioak eramangarri egingo ditu, ez da guztiaz kexatuko eta irtenbide bat ikusiko du, baita ez dagoela iruditzen zai- nonean ere. Horrela, gurasoek umeak zain- tzearen gauzarik onena ikasiko dute; oso- tasunean bizitzea. Jakintsuago izango dira. ■ Janire Jaio / Amaia Ugalde

DANTZALDI IBILTARIA

2012~13

Bilbo, Donostia, Galdakao,
Durango, Sopela, Zarautz,
Gernika, eta abar.

AURKEZPEN JAIALDIA:

DOAN

Irailak 15 (larunbata), Bilboko BBK Aretoan (Gran Vía, 19)

18:00-Aurkezpen Tailerra; 20:00-Erromeria Jaialdia

Durangon astearteetan Plateruena Kafe Antzokian

OINARRIZKO DANTZA IKASTAROA

18:30etik 20:00etara

- Erromerietako dantzak ulertu eta ikasteko.
- Hasieratik, lehen urratsetatik.
- Jota, Porrúa, Jauziak, Balsa, Pasodoblea, Txotisa, Mazurka, Polka...

90 minutu astero urritik ekainera
izen ematea 150 euro

www.aikotaldea.com

Tel. 634 423 539

DANTZAGUNEA

20:00etatik 21:30era

- Oinarrizko ikastaroa egin dutenentzako, dantzari ohientzat eta oinarrizko dantzaren ezagupena dutenentzat.
- Astero dantzan, dantzazaleen artean eta giro atseginean praktikatzeko tokia.
- Aiko taldeko dantza maisuen gidaritzapean dantzakera, ulermena eta errepertorioa aberasteko aukera.

AIKO IRAKASBIDEA EZAGUTZEKO AURKEZPEN TAILERRA

DOAN

Durangon, irailaren 18an, 19:00etan
Tokia: Plateruena Kafe Antzokian



IRITZIA >

gutunak@anboto.org

Gutunak @

Berrizen, 2012ko irailaren 11n

75 urte bete dira gaur Felipe Urriaga eta Jose Lopez berriztrarrak Derioko hilerraren horman fusilatu zituztela irailaren 11ko goizaldean. Ordurako lurrazpian zetzan abuztuaren 4an fusilatutako Gregorio Urkijoren gorpuak.

Beste behin ere, hementxe gaude gertaera haiek gogora ekartzeko, dagoeneko 75 urte pasatu diren arren.

Agian baten batek galdetuko dio bere buruari zergatik jarraitzen ote dugun omenaldi hauetan biltzen, pasatu diren urteak pasata...

Hemen gaudenok oso argi daukagu. Lehenengo, familiarren memoria dugulako eta zigor gabe errepresaliatutako pertsonenganako dagoen zorraren aitortza eskatzen dugulako. Baina, batez ere, gertatutakoaren egia ezagutzea beharizan bat dela uste dugulako gure herriaren ideia eta baloreentzat baita gaur eguneko gizartearentzat ere.

Bai, egia da, dagoeneko 75 urte pasatu dira Mola generaren eta Francoren tropak Berrizen sartu zirenetik. Baina ez dugu ahazten, eta Berrizko herriaren historiak ezingo du ahaztu, legez aukeratutako autoritate eta herritar askoren aurka hamarkada askotan zehar ezarritako terrore eta mendeku erregimena.

Erregimen autoritario eta faxista, oraindik ere gertaera historiko moduan ofizialki ez dena aitortu espainiar estatuko hainbat botere eta talde politiko askoren aldetik.

Frankisten ideien irudikapena egunero ikusten dugu kaleen izenetan, monumentuetan, eta abar. Ez da astebete gaur egungo faxistek "frankisten esklabuak" omentzeko egindako monolitoa txikitu dutela Bidangotzen, Nafarroako Erronkarin, Berrizko herritar askok gatibu-lanak egin zituzten lekuan.

Elizak ere ez du sekula ofizialki aitortu *gurutzada* deituzion horri emandako babesa. Espainiako eskuineko lider politikoez ez dute alde batera utzi beraien iragan frankista, eta abar. Gertatu zena nahasi eta izkutatzeko saiakerak aurrera darrai.

Horregatik guztiagatik, Berrizko herritarrok ez diogu utzi zizuten askatasun eta justizia sozialaren ideientatik errepresaliatutakoak publikoki gogoratu eta ohoratzeari. Gure gizartearentzat adibide eta balio etikotzat ditugu.

Omenaldi hauetan defendatu izan dugun moduan, pertsona hauenganako eta irudikatzen zituzten ideien egia, justiziaren eta erreparazioaren beharrezan berresten dugu.

Berriz 1936 Gogoratzen kultur elkarte

Iluntzek 30 urte

Hogeita bosnaka ospatzen dira urteurren handiak, baina salbuespena egingo dugu. Ez galdetu zergatik. Gogorik ez genuelako baztertu genuen 25. urteurrena; gogoia dugulako, aldiz, ospatuko dugu aurtun 30. urtemuga.

Idea aldrebesa dirudi honek guztiak, eta halaxe da.

Zer nahi duzue esatea, gure dantza taldearen izaera ere aldrebeskeriarekin lotu daiteke.

Nahasia delako Traña-Matienako Iluntze dantza taldearen bilakaera: folklore aldarrikapen batek sortu beharrean, AEK-ko gau eskola batetik sortu zen, ikas-elkarte gisa.

Abadiñon sortu zen, baina herriko koreografi sakrilegioa egin, eta Garaiko dantzarien urratsak hobetsi zituen; dantza talde euskaldun gisa jaio zen, non eta auzo ezin erdalduago baten harridurapean.

Sorrera hartatik hona lagun izan dugu dantza taldez nahasi ginen sentipena. Baina bidean goaz.

Horrela bada, irailaren 22an ospatuko dugu 30. urteurrena Traña-Matienan. Urteetan zehar Iluntzeren parte izandako gehienok berriro bilduko gara. Berdin-berdin gogora ekarriko ditugu jada gure artean ez daudenak, edota auzora bueltatu ezin dutenak ere. Denok egongo gara, elkarrekin.

Eta ez espero su-artifizialik. Ahaztu meza santua. Ospakizuna alarde erraldoiarekin hasiko dugu eta hortik eratorriko da guztia: Asterixen komikien gisako herri bazkaria, omenaldia, bideo labor bat, eta haurrentzako pailazo-ikusizuna.

Erromeria ere egingo dugu, noiz eta arratsaldeko 19:00ak aldera, gure izenari gorazarre eginez, iluntzean.

Irailaren 22an, beraz, gogoz ospatuko dugu Iluntze dantza taldearen 30. urteurrena, Traña-Matienako kaleetan. Abadiñan, Durangaldeko herritar zein euskal herritar izanda ere, lerrootatik gonbidatzen zaituztegu festara. Portzierto, bazkarirako txartelak Hezgarri eta Petite liburudendetan, eta Errota kultur etxean aurki daitezke.

Egon lasai, hurrengo zapatuan Trañako plaza-ara etortzen bazarete, gogoz eskertuko dizuegu.

Urte askotarako Iluntze! Gora gu ta gutarrak!

Iluntze dantza taldea (Traña-Matiena, Abadiño)

Sei hankako mahaia

Dani Maeztu
Aralar

EAJren lehentasunak

Ikasturte berri baten murgildu gara eta aurtengoa ere gogorra izango da. Ezin ukatu gero eta zailagoa egiten zaigula familia edo etxe berean bizi izatea. Gure gastuei aurre egiteaz gain, umeenak ere hor izango ditugu: garraioa, jantokia, materiala, eskola kanpoko ekintzak, arropak... Horiek guztiak gehitzen dira irail-leko malda malkartsu honetan. Etxe gehienetan doikuntzak egitea erabaki dugu: kirola egiteko materiala berrerabiliko da eta beharrezkoak ez diren gastuak murriztuko ditugu. Hori bai, gurasook argi dugu gure inguruko ez zaiela inoiz eskola, osasuna eta dilistak faltako. Gogoeta horiek guztiak burutik pasako zaizkio ANBOTOKO irakurle askori.

Kazikismoa indarrean dagoen Durango honetan eztabaida parte-hartzailez berba egitea utopia da

Politikaz ari garenean, sarri entzun izango zenituzten familia ekonomia oinarri hartuta jarritako ereduak. Familiak aurrekontuetan doikuntzak egiten dituen moduan, udaletako aurrekontuetan ere gauza bera egiten da: inguruko (herritarren) lehentasunak finkatu eta inbertsioak erabaki. Bada, badirudi Durango-ko Udalean dagoen EAJk ez duela kontzeptua barneratu. Durango 2.000 pertsona inguru dago langabezia, 1.100 eskaera daude Etxebiden eta 30.000 pertsona daude kultur etxe duin bat barik. Horri muzin egin eta EAJk erabaki du, dekretuz, abuztuaren gutxienez 300.000 euroko kostua (eta ziurrenik hortik gorakoa izango da gastua) izango duen futbol-7ko zelaia egitea Tabiran. Herritarrek pentsatuko du herrian baditugula beste futbol zelai asko, modalitate horretarako moldatu daitezkeenak.

Abuztuaren sinatu da dekretua, herritarrek oporretan geundela, eztabaida politikoa eta soziala ekidinez. Egia esan, kazikismoa indarrean dagoen Durango honetan eztabaida parte-hartzailez berba egitea utopia da. Marten biziko bagina moduan.

Laguntzaileak:

BFA
DFB Bizkaiko Foru Aldundia
Kultura Saila

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2012ko irailaren 14a
10. urtea - 471 zk.

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:
Joseba Derteano.

Administrazio burua: Itziar Belar.

Administrazioa: Miren Abasolo.

Publizitatea: Goretti Alonso,
Amaia Huarte, Itxaso Altuna,
Maialen Balanzategi.

Erredakzioa: Aitziber Basauri,
Itsaso Esteban, Markel Onaindia,
Amaia Ugalde.

Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.

Zuzendzailea: Ekaitz Goienetxea.

Argazkilariak: Kepa Aginako,
Zalaoa Fuertes.

Lege gordailua: BI-2268/01 ISSN: 1578-7028 Tirada: 10.150 ale

@anbotokultura

KULTURA[>]

ISMAEL IGLESIAS > ARTISTA

“Soiltasuna eta naturaltasuna da bilatzen dudana”

Pekinen (Txinan) egonaldi artistikoa burutzeko aukerari ahalik eta zuku gehien ateratzen ari da Ismael Iglesias Durangoko artista. ‘Yellow tide’ izeneko erakusketa ipini du hango arte galeria batean

Zelan ailegatu zara Pekinera?

Etxepare Institutuak artisten egoitzaldieta-rako eskaintzen duen dirulaguntza kudeatzen du Judas Arrieta hondarribitarrak Pekinen daukan MA studio taldeak. Hainbat aldiz saiatu ostean, egoitzaldi horretarako hautatu naute aurten. Nire proiektu artistikoa garatzeko bihilabeteko egonaldia egingo dut hemen. Koldo Almandoz zinema zuzendaria eta neu aukeratu gintuzten.

Zure margolanen erakusketa zabaldu duzu, besteak beste. Egonaldian sortutako lanak dira ‘Yellow tide’ erakusketakoak?

Bai. Pekinen eraikitakoak dira lan guztiak. Egia da, dena den, aurretik egindako beste hamar lan ere badauzkadala erakusketa horretan: tinta txinatarraren erabilera tradizionalagaz antzekotasunak dauzkalako, lan horiek hemen harrera ona edukiko zutela pentsatu nuen, eta ikusi duten txinatar guztiek agertu dute lan horiekiko interesa.

Erakusketaren izenburuak film bati egiten dio erreferentzia.

Bai. Na Hong-jin zuzendari korearraren *Yellow sea* filman inspiratutakoa da izenbu-

rua. Nire margolanak ez dauka filmarekin zerikusi zuzenik, baina badaude herrialde liluragarri honetako nire egonaldiari erreferentzia egiten dioten konexio batzuk ere.

Zerk desberdintzen ditu lan hauek eta Euskal Herrian egin dituzunak?

Zaila da desberdintasun horiek topatzen... Hemen denboraldi luzeagoz bizita igarriko lirake eragin txinatarrak. Dena den, egia da nire orainarteko lanari lotuta, bide berriak abiatu ditudala hemen. Horregatik bakarrik, oso positibotzat jotzen dut nire Pekingo esperientzia hau.

Erakusketaren aurkezpenean diozunez, zure obraren ikusle kritikoena zeu zara. Bidaia honetan emandako aldaketa da hori ala lehenagotik emandakoa?

Buruan aspaldi bueltaka darabildan gaia da: neu naiz nire lan egiteko modua ondoen ezagutzen duena, badakit zeintzuk tranpa erabiltzen ditugun artistok, behin eta berriz errepikatzen ditugun soluzio azkarrak zeintzuk diren... Eta hain justu, horretatik ihes egitea da gura dudana. Soiltasuna eta naturaltasuna da bilatzen dudana.



“Salerosten diren objektuen ekoizleak dirudigu. Uste dut artea harreman komertzial hori baino gehiago dela”

Zerk eraman zaitu gogoeta horretara?

Salerosten diren objektuen ekoizleak dirudigu guztiok gaur egun, galdu egin da naturaltasuna. Uste dut artea harreman komertzial hori baino askoz gehiago dela. Erantzunik gabeko galderak planteatzen laguntzen duen bizi esperientzia bat da artea. Inguratzen naudenari buruzko nire ikuspegia ematen laguntzen dit. Bizitzea egokitu zaidan orainaldiaren konplexutasuna eta soiltasuna erakutsi gura ditut.

Euskal Herriko lekuren batean ikusi ahal-ko da ‘Yellow tide’ erakusketa?

Obra hau guztia hemen uzteko asmoagaz jardun dut. Zaila izango da proiektu hau Euskal Herrian ikustea. Bihar daukagu erakusketaren irekiera, eta hainbat galeristen bisita jasoko dugu. Oso polita litzateke eurekin harremanen bat abiatzea.

Koldo Almandozekin konpartitzen duzu espazioa. Zer harreman daukazue?

Loiuko aireportuan ezagutu genuen elkar, eta uste dut bizi osorako lagunak izango gara. Tipo maitagarria da, eta arteari buruzko hainbat ideia konpartitzen dugu. Gainera, hemen burutzen ari den lana oso interesgarria egiten zait.

Zertan diharduzu orain lanean?

Formatu handiko margolanen serie bat osatu berri dut. Hasieran arazoak eduki nituen erabiltzen dudana materialagaz (karroza-tinta) eta hiriko tenperaturagaz. Ezinezkoa da 35 gradu eta %100eko hezetasunagaz material hori baliatzea. Horregatik, goizaldeetan egin izan dut lan. Shangairi bidaiatzea eta Txinako marea honetan nabigatzen jarraitzea da dauzkadan beste proiektuetariko batzuk. ■ I.Esteban

“Sorkuntza prozesuak mantentzen nau bizirik”

Judas Arrietak Pekinen kudeatzen duen MA studio taldeak eskainitako egonaldi artistikorako aukeragaz ailegatu zen Ismael Iglesias uztail amaieran Txinara.



Bere obraren ikusle kritikoena bera dela dio Ismael Iglesiasek *Yellow tide* erakusketaren aurkezpen orrian, bere lanagaz gero eta inkonformistagoa dela.

Marraztea, ekintza bera da Iglesiasen berbetan gehien betetzen duena, eta aldi berean, mintu ere egiten duena. “Sorkuntza prozesuak mantentzen nau

bizirik, eta prozesu hori amaitzen dudanean hiltzen naiz”.

Geometria eta espresionismoa uzartuz jarduten du Iglesiasek, eta koadroak berbaz azaldu barik, nahiago du jendearen interpretaziora zabalik utzi. Jendea koadroak ikustera gonbidatu eta gainontzekoa imajinazioaren arabera libre utzi.

Kontatu du Guillermo Aymerich Carallo artistaren motorretik ezagutu duela 22 milioi biztanleko Pekin. Bidaia honetan gura duen guztia ikustea ezinezkoa izango duela badaki, eta nahiko luke berriro hainbat aldiz joan.



DANTZA >

Erromeria zabal bategaz abiatuko dute Aiko-ren dantza denboraldia

Bilbon egingo dute, bihar, AIKO dantzaldien aurkezpenerako erromeria; Plateruenean batuko dira martitzenean

Musika eta dantza tradizionala ikasi, praktikatu eta gozatzeko aukera bultzatzen du Aiko taldeak, eta soka-dantzak, arin-arinak, fandangoak, jotak eta porrusaldak uztartzen dituen errepertorioagaz jarraituko aurten ere.

Aikoren eskaintzak zertan datzan ikusteko aukera, irailaren 18an, Plateruenean



Aiko taldeko irakaslea, parte-hartzaileei jarraibideak ematen.

Bosgarren ikasturtea da ekimena antolatzen dutena, eta aurreko edizioetan bezala, Durangoko Plateruena kafe antzokiak hilean behin hartuko ditu ekimenaren erromeriak. Dantza ikastaroen osagarri eskaintzen dituzte erromeria bereziak, eta helburu zehatz bategaz: antzinako dantza herrikoien jai-giroa berreskuratzea. Aikoren eskaintzak zertan datzan ikusteko interesa daukanak Plateruenean aurkezpenarekin ere izango du horretarako aukera: irailaren 18an, 18:00etan.

Bihar, berriz, Bilboko BBK aretoan egingo dute Aiko dantza ekimenaren ikasturte berriaren aurkezpena. Erakustaldi-tailerra eta zuzeneko erromeria egingo dituzte, 18:00etan hasita. Ikasle hasi berriek nahiz beste edizio batzuetan jardundakoek musikaz eta dantzaz gozatzeko aukera izango dute Bilboko hitzorduan.

Durangoko Plateruenean egingo dituzte saioez aparte, leku gehiagora zabalduko dute ekimena. Donostian -Victoria Eugenia- eta Bilbon ere -Campos Eliseos antzokian- egingo dituzte dantza tradizionalari buruzko ikastaroak.

Izena eman gura duenak, bestalde, www.aikotaldea.com webgunean edota 634 423 539 telefono zenbakira deituta egin ahalko du matrikula. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Jon Irazabal
Gerediagako
kidea

1982... atzo goizean

Atzo goizean izan zelako inpresioa daukat, baina denbora aurrera dihoa gelditu gabe. 30 urte bete dira abuztuaren 20an Madrileko 'ostatua' utzi eta etxerako bidea hartu nuela 18 hilabetez, gogoaren aurka, erregearen morroi izan ondoren. Ilusio handiarekin, egun batzuk lehenago Iurretan Amatzako baselizaren ondoan bilbotar baten zuzendaritzapean, Iñaki Garcia Camino, indusketa arkeologikoak hasiak zeuden eta jakinahi handia Joserengan, Amatzako etxaguna, landak ze sekretu gordea zeukaten XII. mendetik. Lehen saiakera hark emaitza pobreak eskaini zituen baina egun batzuk geroago Garaira, Momotioko San Juane-ra joan ginen gure aitzur eta abarrak harturik. Han ere uztektan zeudela, hilerria aurkitu zuten eta urteetako lanaren ondorioz emaitza benetan oparoak eskaini zituen gure Erdi Aroa ezagutzeko. Gazteak ginen, ilusioz beteta, Iurretako abadetxean urte batzuetan eta beste batzuetan Garaiko lehenagoko eskolako lur gainean egiten genuen lo, baina gustura denean ez dago ohe gogorrik.

30 urte bete dira... Eta urte horietan gure Durangaldeko beste hainbat eta hainbat tokitan zulatu da lurra gure iragan zerbait gehiago ezagutzeko asmoarekin. 1982. urtean Iñakiren eskutik hasitako bideak Belen Bengoetxea, Dona Gil, Armando Llamosas, Iñaki Pereda, Silvia Cajigas eta beste batzuen lanetan izan du jarraipena eta hor daude emaitzak... Gaur egun gure historiaren garai beltzenera bati buruz hainbat ezagupen dugula baina... Oraindik ez da lana bukatu. Ezagutzen dutena, duguna, argi dute oso gutxi dela eta lanean jarraitu behar dela. Datorren astelehenean, lehen indusketatik 30 urtera, Argiñetan hasiko dira, Iñaki Garcia Caminoren zuzendaritzapean, indusketa arkeologiko berriak. Gune honek lur azpian duen historiaren liburu orriak irakurtzen hasiko dira eta benetan espero dut bertan Jaungoikoaren izenean lokartu ziren Paterna eta Momus gehiago ezagutzeko aukera izango dugula.

30 urtean zehar zuzendari eta morroi izan zaiten guztioi zorionak eta mila esker!

ARGAZKIGINTZA >

San Agustinerak dakarte 'Desagertuak' bilduma

Gervasio Sanchez argazkilari eta kazetariaren argazkien bilduma da

Gervasio Sanchez Kordobako (Espainia) argazkilariaren lanen bilduma da *Desagertuak*. Hego Ameriketara, Asian zein Europan desagerturiko pertsonen oroimena ahanzturatik berreskuratzeko hainbatek egindako borrokaren isla gura dute izan Sanchezen argazkiek. Egia eta justizia errebeindikatzen ditu argazkilariak bilduma honetarako egindako argazkiekin, eta "onartezinak diren gehiegikeriak salatu". Falta diren oroimena babesteko ekinean, desagertutako senideen erretratuei protagonismo berezia eman die argazkilariak.

Munduko hainbat gatazkatarak egindako bidaietan garatu zuen proiektuaren emaitza da

Egia eta justizia aldarrikatu gura ditu argazkilariak bilduma honetako argazkiekin



Hamabi urtean (1998tik eta 2010ra) munduko hainbat gatazkatarak egindako bidaietan garatu zuen proiektuaren emaitza da, eta Durangoko San Agustin kulturgunera ekarriko ditu.

Datorren astelehenean zabalduko dute argazki erakusketa, eta irailaren 30era arte egongo da ikusgai, kulturgunearan sarreran. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

IRAILAK 14 22:00etan
ERNESTO SEVILLA
BAKARRIZKETA. Sarrera: 12-14 euro.

IRAILAK 15 22:00etan
THE GREG'S MURDERS + THE MOCKERS + KROME
LOKALETIK AT. Sarrera doan.

IRAILAK 21 22:00etan
MORTIMER
ANTZERKIA. Sarrera: 5 euro.

Eguneko menua astelehenean larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

KANPOALDEA TOKI BAT DA
Arena en los bolsillos teatro
(1-4 urte bitartekoentzat)
Irailak 23 • 12:00/17:30

CRIMEN PERFECTO
Txalo Producciones
Irailak 30 • 19:00

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitliburudenda.com
946 810 776

Eskolara buelta



 anboto

Ezagutu mundua Boboliren eskutik



Boboliren udazkeneko bilduma barria ezagutu egizu

Koadroak modan



Denboraldi honetan koloretako koadrodun alkondaraz eta soinekoz beteko dituzte ume eta gazteen etxeko armairuak. Gorria eta larrosa neskenzako, eta urdina eta beltza mutilentzako.

Mutilentzako, kordeldun bota altuek praka bakeroeekin bat egingo dute



caribu

Txamarra koloretsuak aurkituko ditugu aurten, batez ere urdinak



caribu



BOBOL



Koloretako txaleko koloretsuak moda-modan jarri dira



caribu



Juan Antonio Unzueta, 4
Matiena • 94 620 43 24

Nik  **irailaren 3tik 21era**
UDAL EUSKALTEGIAK

euskara 

Matrikula zabalik 2013 IKASTURTEA

Dirulaguntzak eta hobariak - 16 urtetik gorakoentzat
Astelehenetik ostegunera (10 ordu / 6 ordu)
Hizkuntza eskakizunak (1, 2, 3) prestatzeko ikastaroak
Autoikaskuntza zerbitzua internet-en bidez MOODLE
Gurasoak eta Udal langileak - Ikasturteak: urritik ekainera

Bulego ordutegia: 10:00-13:00 / 15:30-18:30 - Ostiraletan 10:00-13:00
Saibi kalea 10, 3A - 94 603 00 40 - euskaltegia@durangoeuskaltegia.net



Lorez betetako
jaka eta
legginsek
alaituko digute
negua



Bota eta botin
altuek euri eta
hotzetik
babestuko
dituzte umeak

caribu



Txikitxoentzako
zuri eta larrosa
koloreko arropa
klasikoetako
bat da

caribu

caribu



**Musika Moderno
Gunea eta
Umeentzako
Musika**

matrikula zabalik

Gitarra • Pianoa • Bateria • Baxua • Rock eta Jazz konboak • Lengoia Musika • Harmonia Grabaketa eta Informatika Musika • Saxoa • Bibolina • Trikitixa • Akordeola • Panderoa
Flamenkorako perkusioa • AUDIO TEKNIKARI DIPLOMA PROFESIONALA

Alluitz, 3 behea • Durango • 94 603 27 50 • www.rockizarra.com • info@rockizarra.com

JOLASTU DO-RE-MI-an!

4-12 URTE BITARTEKO UMEENTZAT

LAU URTETIK AURRERAKO UMEEK EUREN SORMEN ETA AHALMEN MUSIKALA LANTZEN DUTE TALDE MURRIZTUETAN, NATURALITASUNEZ ETA ERA DIBERTIGARRIAN.

ikasi
eta landu

euskara bizia



Durangaldeko AEK

Euskalduntze maila guztiak
Hizkuntz Eskakizunak (B1,B2,C1,C2)
3. eta 4. maila: presentzialak / on-line
Autoikaskuntza

Durango

94 681 73 49 / 607 159 205
abarrak@aek.org

Elorrio

94 658 21 11 / 607 600 901
abizari@aek.org

Zornotza

94 673 43 70 / 607 151 917
zornotza@aek.org



Garena ikasteko
para entendemos
pour se comprendre

eman izena

www.aek.org
902 362 294



Urritik aurrera eraikin berrian

Lau ikasgela, erabilera anitzeko gela bat, gurasoentzako harrera-gunea eta sehaskentzako gela. Hori dena atontzen ari dira Abadiñoako Traña-Matiena auzoan, laster estreinatuko duten haurreskolan.

Urriaren 1etik aurrera 55 ume inguru hartuko dituzte eraikin berrian. Obrak irailaren 15erako amaituta egongo zirela adierazi zuen Abadiñoako Udalak hasiera batean, baina urrirako egongo da prest.

Obrak amaitu arte, haurreskola zerbitzu barik daude auzoan, eta eragozpenak arintzeko, inguruko bi herritako haurreskoletara joateko aukera eskaini zieten gurasoei udalak eta Haurreskolen Partzuegoak. Iurretako haurreskolara joaten ari dira zazpi ume, eta gainontzekoek urrira arte itxarotea erabaki dute.

Egoin SA enpresa ari da lanak egiten, eta 600.000 euroko aurrekontua dute lanek. Hain zuzen, 2012rako aurrekontuan, Abadiñoako Udalaren inbertsio nagusietako bat da Traña-Matienako haurreskolarena.

Zelaietakoa 2013an

Bestalde, Zelaieta auzoko haurreskola berri-rako, 2013an egingo dituzte obrak, Abadiñoako Independentiek alderdikoek aurreko ikasturte amaieran azaldu zuten. Zelaietakoa Eusko Jaurlaritzak altxatuko duen eraikin berri baten beheko solairuan atonduko dute.

Guztira, herriko bi haurreskolak berritzeko lanak burutzeko, 1.700.000 euroko diru atala gorde zuen Abadiñoako udalak 2012ko aurrekontuan.



Hilabete lurretan

Urriaren 1ean Traña-Matienako haurreskola berria zabaldu arte, zerbitzua gura zutenentzako hiru aukera eskaini zituzten aurreko ikasturte amaieran: lehenengo, Berrizko haurreskoletara joatea; bigarrena Iurretakora joatea; eta hirugarrena, apur bat itxarotea eta ikasturte urrian abiatzea eskaini zieten gurasoei. Zazpi aukeratu dute hilabetea Iurretako haurreskolan egitea. Hezitzaileen berbetan, arazo barik egokitu dira umeak Iurretako haurreskolara. Gainontzeko guztiak urrira arte itxarotea erabaki dute.

Lehen eduki duten eraikina oso egoera kaskarrean zegoela-eta, soluzio bat oso beharrezkoa zela uste dute Traña-Matienako haurreskolaren erabiltzaileek. Hezitzaileek diotenez, "gainera, gurasoek eurek lan handia egin dute, udalaren haurreskola konpontzeko konpromisoa gauzatzeko".

Datorren hilean estreinatuko dute Traña-Matienako eraikin berria. Bertara eroango dituzten 55 umeekin batera, eta Haurreskolen Partzuegoaren bost hezitzaile ariko dira beharrean.

615 758 254
zientziaeskola@gmail.com

Lehen Hezkuntza
Batxilergoa
DBHO
Unibertsitatea
Ikas Teknikak

• Haurrak - Gazteak - Helduak • Azterketa ofizialetarako prestakuntza
• Enpresak: ingeles teknikoa, komertziala eta turismo industriarako ingelesa. Klase indibidualak eta ordenagailu bidezkoak.

BERRIZ 645 718 183 - BERGARA 943 765 089
DEBA-DURANGALDEA KOMITEKO KIDEA - CAMBRIDGE UNIBERTSITATEA

Speak up
Hizkuntzak

Kurutzia Akademia
Aerografia • Bitxigintza • Marrazkigintza eta pintura • Maketak eta modelismoa

ARTE EDERRAK
Ume eta nagusientzako pintura eta marrazkigintza kurtsoak

MATRIKULA ZABALIK
• Astelehenerik ostiralera
• Goiz eta arratsaldeko ordutegia

Tel.: 94 603 05 27 *Informa zaituz konpromezu gabe*

info@academiakurutzia.com • www.academiakurutzia.com

KAMIKOPIAK
KOPISTEGIA

Fotokopiak • Enkuadernazioak • Plotterak
Planoak • Papergintza • Inprimaketa digitala

Berriotxo kalea 9
Tel.-Faxa 94 623 14 31
48230 ELORRIO
kamikopias@gmail.com

Hitz
liburu denda

Tel.: 94 681 07 76
Artekale, 14 DURANGO

Tupperra bazkaritarako

Krisia dela-eta, estatuko hainbat erkidegotan umek bazkaria etxetik eramango dute ikasturte honetan. Tuperragaz doazen ikasleek ikastetxeko jantokiko kuotaren erdia aurreztuko dute batazbeste

Liburuez gainera, bazkaria ere sartuko dute aurten hainbat ume eta gazte eskola eta instituturako motxilan. Krisiak familia askoren ekonomia estutu du, eta aurrezteko neurriak jantokietara heldu dira. Hainbat guraso elkartek umeen jantokiko faktura aurreztu guran, umek bazkaria etxetik prestatuta eramateko ekimena bultzatu dute.

Momentuz Katalunia, Galizia, Valentzia eta Madrilgo eskola publikoetan eskainiko dute bazkaria etxetik eramateko aukera. Hala ere, oraindik ez dakite zenbat ikastetxek eskainiko duten zerbitzu hori.

Janaria erroaten duten umeei jantokiko kuota ez diete kobratuko, baina bai zaintza eta azpiegitura zerbitzuak. Katalunian, esate baterako, euro bat eta hiru euro artean kobratuko dutela

adierazi dute. Erabilitako baliabideen arabera (zaintzaileak, garbiketa, hozkailuak, mikroondasak...) ezarriko dute kuota hori, aurreratu dutenez.

%50 merkeago

Menuaren prezioaren %50 aurreztea da familien helburua. Katalunian bataz beste 90 euro ordaintzen dute jantokiko kuota hilero. Neurri horregaz familia bakoitzari bere etxeko arazo ekonomikoak leuntzen laguntzea gura dute.

Araudia sortzeko

Ikasturte honetan hasiko direnez zerbitzu berria eskaintzen, zentro bakoitzak bere araudia ezarriko du. Hala ere, ikastetxe askotan araudi orokor baten beharra dagoela nabarmendu dute. Gainera, Katalunian, ekimen hori hango gobernuak lantzeko deia egin dute hainbat guraso taldek.



Kalitatezko elikadura vs. Tupperra

Eskoletara janaria etxetik eramateko ekimena sortu bezain laster, umeen elikaduraren kalitatearen inguruko eztabaida piztu da. Eskoletako jantokietan banatzen diren menuak dietistek diseinatutakoak izaten dira. Tupperrean eroango dituzten jakiak, berriz, familia bakoitzaren ardura izango dira. Umek elikagaietan barietate gutxiago izan dezaketela diote aditu askok. Eguneroko presak eraginda tupperrean aurrez prestatutako jakiak eta ogitartekoak eramateko arrisku handiagoa dago. Umek motxiletatik ateratzen dituzten meriendetan sarri ikusten da: opil asko eta fruta gutxi. Kataluniako Generalitateak eta Osasun Publikoaren Agentziak *Elikadura osasuntsua eskola sasoian* gida aurkeztu dute, gurasoei laguntzeko. Umeei elikadura hobetu eta jantokiko kuotan aurreztu gura dutenei zuzendua dago.



Bizkaiko Urtxintxa Eskola
ASTIALDI ETA SUSPERTZE SOZIOKULTURALEKO
IKASTARROAK



Matrikulazioa irailaren 1etik 30era
TITULAZIO OFIZIALAK eta gehiago

www.urtxintxaeskola.org
Tel: 94 432 04 45

- Astialdiko Begiralea *Durango* • Astialdiko Zuzendaria
- Jendarte Kultur Dinamizatzailea • Hezkidetzan Aditua • Kulturarteko Hezkuntzan Aditua • Heziketa Premia Bereziak Astialdian
- Parte-hartzea bultzatzeko Teknikak + IKASTARO LABURRAK

benar duzun eskola-materiala!

- Testu liburuak
- Hezkuntza eskolako liburuak

Arrike
Liburudenda

Kalebarria, z/g • 48200 Durango
Tel.: 94 620 18 93 • Fax: 94 681 64 03

URTXINTXA
HEZIKETA JOSTAILUAK-ESKULANAK

Andra Mari kalea, 9 DURANGO

Tel: 94 681 50 17



%4tik %21era

Eskola materialaren Balio Erantsiaren gaineko Zergak (BEZ) gora egin du aurten. Irailaren 1etik, zerga %21ean dago eta ez %4an, orain arte legez. Hauek dira garestitu diren materialak: agendak, kartulinak, konpasak, koloretako paperak, plastilina, argizariz eginiko margoak, pinturak, tenperak, liburuak babesteko plastikoa, ume eta gazteen motxilak, eskulanetako koadernoak, modelatze-pastak eta kiribilen koadernoak. Igoera bera eduki dute puzzle eta jolas didaktikoeak. Kontrara, %4an geratuko dira testu liburuak, albumak, partiturak, mapak eta marrazketa koadernoak.

Eskolarako eskusiboa ez den materialak ez du BEZaren igoera jasango. Talde horretan sartzen dira folioak, boligrafoak, grapagailuak, kola, artaziak, borragomak, errotulagailuak, edota erregelak.

Bestalde, aipatzekoa da denda batzuetan igoera ez dutela oraindik aplikatuko, kontsumitzailea erakartzeko helburuz.



Telebistatik dator moda

Eskola materiala ez da libratzen moda eta egungo joeretatik. Diseinuak garrantzia handia dauka hainbat materialetan; hori motxiletan igartzen da batez ere. Ume eta gazteek telebistan ikusten dituzten saioretako pertsonaietan oinarritzen dira arrakasta handiena daukatenak. Umeen motxiletan, *Dora la esploradora*, *Bob esponja*, *Hello Kitty*, *Pocoyo* eta *Doraemon* dira

gehien erabiltzen direnak. Gazteen kasuan, telebistako gustuen arabera moldatzen dira diseinuak. *Batman* eta antzeko superheroiak eroango dituzte motxiletan. Pertsonaien irudi horiek askarirako edota kirolerako zorroetan ere agertuko dira.

Bestalde, erosotasuna lortu guran, gero eta gehiago dira gurpildun motxilak erabiltzen dituztenak.

INPRESIO DIGITALA

DOKUMENTUEN INPRESIOA

FITXATEGI

INFORMATIKOETATIK,

ZURI-BELTZEAN ZEIN

KOLORETAN (LIBURUXKAK, TXARTELAK, GUTUN-AZALAK, TXOSTENAK, ...)

INPRENTA DIGITALA

KOPIAK, PLANOEN INPRESIO

ETA PLOTEATZEA,

ZURI-BELTZEAN ZEIN

KOLORETAN

PLASTIFIKAZIOAK

ENKUADERNAZIOAK

(ESPIRALA, KANUTILOA, JOSITA, TESIAK)



Iurreta kopistegia

Bidebarrieta, 1
48215 IURRETA
Tel. 94 681 10 70
mac@iurretakopi.com



DISEINU GRAFIKOA

KOMERTZIALA ETA PUBLIZITARIOA


IRUDI KORPORATIBOA

ORRI-ZENBAKETA LANAK

MAKETAZIOA ETA

INPRIMATZEA

(ALDIZKARIAK, LIBURUAK, KATALOGOAK)





EROSKI

zurekin

BERRIRO ESKOLARA

2012 UDAZKENA-NEGUA
KO BILDUMA

PROGRAMAZIOA > AURKEZPENA

Umeentzako antzezlanagaz abiatuko dute ikasturtea

Atzo aurkeztu zuten irailetik abendura arteko Durangoko San Agustingo programazioa

Kulturguneko Arantza Arrazola kudeatzaileak eta Astarloa Kulturgingtzako Jon Kepa Garro presidentek aurkeztu zuten, atzo, irailetik urte

Hamalau ikuskizuni egin diete irailetik urtea amaitu arte egitarauan

amaierara arteko Durangoko San Agustin kulturguneko programazioa. Hamalau ikuskizuni egingo diete lekua ikasturte berria hasteko programazioan.



Lau urte arteko umeentzako antzezlan bat izango da kulturguneko egitarau berria estreinatuko duena: Granadako Arena En Los Bolsillos antzerki taldearen *Kanpoaldea toki bat da* obra. Umeentzako ikuskizunek azken urteetan izan duten harrera beroari erantzunez lotu dute emanaldia. Irailaren 23an izango da eta lanaren pase bi egingo dituzte, 12:00etan eta 17:30ean.

Arantza Arrazolak esan duenez, "programazio anitza" osatzea izan dute helburu, eta askotariko

kutsi dituen Portugalgo Chapito taldearen azkenengo lana eskainiko dute, urriaren 25ean: *Perro que muere no ladra*. "Maite duten izaki baten heriotzari oso berezian aurre egiten dion familia baten istorioa da", kudeatzaileak azaldu duenez.

Durangaldeko uzatirik

Ohi duten eran, eskualdeko sortzaileei euren lana eszenaratzeko aukera ere eskainiko diete datozen lau hileetan, kulturguneko programazioan. Adibidez, urriko egitarau zabaltzeko, Durangaldeko Gorakada antzerki konpainiaren *Printzea eta ahatea* eskainiko dute.

Bestalde, Durangoko San Fausto jaiei lotuta, Berrizko Txintxaun Kolektiboa antzerki taldeak *The Full Monty* oholzaratuko du, urriaren 11n.

Gainera, obra berri bat erakutsiko du, azaroaren 30ean, bere lanak San Agustin kulturgunean bertan prestatzen eta entseatzen dituen Ganso & Cia konpainiak, *Babia* izeneko lana estreinatuko dute, horrenbestez, 'etxeko' antzezleek. ■ I.E.

Askotariko adin tarte eta gustuentzako antzezlan emanaldiak lotu dituzte

Umoretik jotzen dutenak dira ikusgai izango diren antzezlanetako asko

adin tarte eta gustuentzako antzezlan emanaldiak lotu dituzte. Dena den, umoretik jotzen dutenak dira ikusgai izango diren antzezlan horietako asko.

Esaterako, San Agustin kulturgunean lehenago hainbat lan era-

Durangaldeko sortzaileek zabalik izango dituzte kulturgunearen atea

MUSIKA >

Lehenengo Kantulagun saiora Tapia eta Leturia gonbidatu dituzte

Plateruenak antolatzen du Kantulagun ekimena eta ikasturteko lehenengo hitzordua irailaren 27an izango da



Joseba Tapia eta Xabier Berasaluze Leturia gonbidatu dituzte irailaren 27ko Kantulagun ekimenaren lehenengo hitzordura. Astelehenetik aurrera eman daiteke Durangoko Platerueneko Kantulagun Kantuzaleen txokoan parte hartzeko izena. Hirugarren kurtoa da Kantulagun antolatzen dutena, helburu simple bezain garbia duena: "Lagunartean kantatzeko elkartzea".

Beñat Aiertza gitarristak eta Ugaitz Catalan abeslariak gidatuko dituzte saioak, eta euskal kantari ezagun bi gonbidatuko dituzte beste egun bitan. Aurreko bi edi-

zioetan harrera oso ona eduki duen egitarauaren antzekoa antolatuko dute baita 2012-2013 ikasturterako ere.

Hasteko, euskal kantutegiko abestiak kantatzeko aukera egongo da Tapia eta Leturiagaz irailaren 27an, 20:00etan, Plateruenean. Bestalde, iaz bezala, kalean ere jardungo dute kantuan: kalerik kale kantatzera aterako dira kantulagunak ikasturtean hiru aldiz.

Antolatzaileek guztiak animatu gura dituzte ekimenean parte hartzera: "Ez dago kantari ona izan beharrik". Lagun artean gozatzeko gogoia baino ez. ■ I.E.

Urratsez urrats

helmugaraino!

*¡Bienvenido!
Has llegado a
Durangaldea*

*Bine ai venit!
Ai ajuns
În regiunea Durango*

*Durangaldera heldu zara,
ongi etorri!*

*Vous êtes arrivé
à Durangaldea,
nous vous souhaitons
la bienvenue!*

*Welcome!
You have arrived
at Durangaldea*

مرحبا! لقد وصلت
إلى دورانغلديرا

欢迎光临! 欢迎来到
Durangaldea!

Matrikulatu
Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoko
euskarategietan




94 623 2522

Laubideta 6, 48200 DURANGO - euskera.mdurango@bizkaia.org

www.euskaragida.com webgunean zure euskara maila ezagutzeko aukera izango duzu. Sartu eta zure euskara maila ezagutu ostean animatu zaituzte euskararen urratsak ematera!

Eskaintza osoaren berri bertan aurkituko duzu.
Sartu eta animatu!

www.euskaragida.com

Gremioen gida

ELEKTRONIKA

URBASA ELEKTRONIKA
TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com




Panasonic

AROTZERIA

EGUIA S.L.
AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653



Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com

DEKORAZIOA



Jaio barnizatuak



- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guztietako zaharberritzeak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21
Fax: 94 682 48 95 - info@jaioarnizatuak.com

GARBIKETAK

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfombra

Goietia, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta



PUJANA
ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

ITURGINTZA



gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

Mallabiena
M.Z.O.ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



LORAZAINTZA



Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

ARGIZTATZE TEKNIKAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

@anbotokiriola

KIROLAK >

Extremeño futbol kluba desagertu egin da errelebo faltaren ondorioz

Legegintzaldi bitan indarrak ahituta, Manuel Reyes presidenteak ez du ordezkorik aurkitu



Gizonen iazko talde nagusia; jokalariei talde berria bilatzen ahalegindu da zuzendaritza. J.I.



Emakumeen iazko talde nagusia. Jon Iglesias

Durangaldeak aurten ordezkari bat gutxiago izango du nagusien mailako futbole-an. Hirugarren erregionalean zebilen Durangoko Extremeño futbol kluba desagertu egin da. Zazpi urtean klubeko presidente izan ostean, Manuel Reyesek, nekata, kargua uzteko asmoa adierazi zion elkarteari otsailean, eta harrez gero ez dute ordezkorik topatu. Beraz, zuzendaritzarako errelebo falta izan da kluba desagertzeko arrazoia.

Iazko denboraldia amaitu zenean, Manuel Reyesek berak jakinarazi zien jokalariei kluba desagertu egingo zela: "Ligako bigarren itzulian ikusten zuten denera heldu ezinik genbiltzala eta nik uste askok sumatzen zutela horrelako zerbait". Maiatzean izan zen hori. Urteetan pilotutako material eta dokumentazio osoa dagoeneko kaxetan gordeta dutela dio Reyesek. Jantziak Durangaldeko Gobernu Kanpoko Erakunde bati emango dizkiete.

Extremeño klubak lau futbol talde kudeatzen zituen: gizonetan, nagusien eta gazteen mailako taldeak, eta emakumezkoen talde bi. Emakumeen talde

biak Durangoko Ezkurdi futbol taldeak kudeatuko ditu aurrerantzean. Horrela, aurten futbol 7ko talde bi edukiko ditu Ezkurdik gaztetxoetan. Extremeño gainerakoei taldea bilatzen ahalegindu da Reyes presidentea eta oraindino horretan dabil kasuren bategaz. Jokalari batzuk Ezkurdi edo Zaldibarko Zaldia taldeetara joan dira, esaterako. Kepa Uriarte entrenatzailea Galdakaora joan da eta beragaz eraman ditu beste hainbat.

Extremeño 1975ean jokatu zuen bere lehen partidu federatua

38 urteko historia

Extremeño kluba 1974an sortu zuten eta bere lehenengo neurketa San Fausto taldearen kontrako adiskidantza bat izan zen. Handik gutxira Justo Pererak taldearen gidaritza hartu eta, kluba federatzeko asmoagaz, zuzendaritza batzordea sortu zuen. Jose Castro izan zen klubaren lehenengo presidentea, eta Perera idazkaria.

Taldea federatu ahal izateko klubari bere futbol zelaia izatea eskatzen zion Bizkaiko futbol federazioak. Auzolanean, Garaizarko lur zati bat lautu eta azpiegitura denekin hornitu zuten (dutxak, argindarra, ura...). Horrela, Extremeño 1975ean jokatu zuen bere lehen partidu federatua. Harrez gero, gizonen talde nagusiak sekula ez du igorarik lortu. Bigarren eta hirugarren erregionalean jokatu izan du. Azken urteetan Tabirako futbol zelaian jokatu izan du Extremeño, Garaizarko zelaian beharrez. ■ J. D.

Emakumeen talde biak Ezkurdi futbol taldeak kudeatuko ditu

"Klubari lagundu dioten denei eskerrak eman gura dizkiet"

Presidente karguan zazpi urtez dena ematen aritu ostean, Manuel Reyesek ez zuen beste legegintzaldi bati aurre egiteko energiarik



- Manuel Reyes (45 urte)
- Klubeko presidente ohia

la legegintzaldi bi egin dituzu Extremeño presidente.

Bai, eta nekata nengoen. Urte hauetan ahal dudana eman diot klubari, baina nahikoa zela uste nuen. Azkenean, hainbat faktorek bat egin dute, pertsonalak ere bai tarteko. Extremeño 150 bat bazkide ditu. Urteko batzarrean esan nien ez nuela jarraituko. Elkarteari ere berdina esan nion. Zoritxarrez ezin izan dugu ordezkorik aurkitu.

Eta kluba desagertu egin da. Pena da, baina ez dut dramarik sortu nahi. Extremeño

ziklo bat osatu du eta amaitu da. Urte hauetan guztietan modu batera edo bestera klubari lagundu dioten denei eskerrak eman gura dizkiet, euren laguntza garrantzitsua izan delako. Jokalariei, entrenatzaileei, zuzendaritzakoei... Denei eskerrik beroenak.

Presidente izan aurretik ere klubeko kidea zinen.

Urte bian Extremeño gaztetxoan taldean jokatu naiz! Ostean, soldaduskara joan aurretik beste hiru urtez kadeteen taldean jokatu nuen. Soldaduskatik bueltatu

nintzanean futbolari lotuta jarraitu nuen Kurutzia laskolako taldean, esaterako. Orain hamabost urte Extremeño gaztetxoak entrenatzea proposatu zidaten beste lagun bategaz batera.

Zelan hartu zenuen presidentet kargua?

Futbol zelaia aldatu genuen sasoian [Garaizarretik Tabirara], orduko presidenteak dimittitu egin zuen. Bost-sei guraso bakarrik geratzen ginen. Azkenean kargua norbaitek hartu behar eta neuk hartu nuen.

Urte hauetako guztietako zein gomutagaz geratzen zara?

Presidente zein entrenatzaile nintzela ezagutu dudana jendeagaz. Orain hamabost urte entrenatu nituen gaztetxoan taldea batu eta afari bat egiteko asmoa dutela jakitea

pozgarria da. Edo jokalaria batek bere amari esatea, bere futbol ibilbidean gertatu zaion gauzarik onenetakoa nik entrenatu nuen sasoia izan zela. Ez dago dirurik hori ordainduko duenik.

Une txarrik bai?

Beti daude. Interes asko dago futbolean, batez ere gaztetxoan mailetan eta gurasoekin. Lagunak nituen batzuekin orain ez dut hartuemanik. Baina une onekin gertatzen naiz.

Extremeño ez du igorarik lortu nagusietan.

Egia da. Ni presidente nintzenetik talderik onena iazkoa zela uste dut. Azkenean, liga erdiko aldean amaitu genuen; gauzak ez zitzaizkigun espero moduan irten. Baina benetan uste dut talde lehiakorra eta ona genuela.

Txapeldunen txapelketak 25. aldiari ekingo dio

Zaldibarko Olazar pilota txapelketa eguenean hasiko da; afizionatu mailako pilotaririk onenak batuko ditu aurten ere



Altzelai-Diez bikotea, Olazar txapelketako iazko irabazleak, sari banaketan. Jose Mari Belar

Zaldibarko Olazar pilota txapelketak mende laurdena egingo du aurten. Denbora honetan guztian, gaur egun profesionalen artean dabilzan pilotaririk gehienek jokatu dute txapelketa. Aurten ere goi mailako parte-hartzea egongo da eta inguruko txapelketarik garrantzitsuenak (Biharko Izarrak, Bergara eta Antiguoko txapelketak...) irabazi dituzten pilotariak etorriko dira.

Urtero legez, txapelketa bi antolatuta dituzte: binakakoa eta lau t'erdikoa. Datorren eguenean jokatu da lehenengo jardunaldia eta finalak abenduaren 31n ebatziko dituzte. Jardunaldiak eguenean, 21:30ean, izan-

go dira Olazar pilotalekuan, eta jokamoldea urteroko bera da.

Pilotariak lau multzotan banatu dituzte (hamabost bikote, eta hamazortzi pilotari lau t'erdian). Taldeak pilotarien mailaren arabera ordenatuta daude. Behetik gorako ordenan jokatu dituzte kanporaketak. Horrela, multzoburua partidu bakarra irabazita sailkatu ahalko da finalurrekoetarako. Behe-behetik hasten dena ere, asko jota hiru partidutan helduko da finalaren atarira.

Faborito asko

Iaz Altzelaik eta Diezek irabazi zuten binakako txapelketa eta

aurten txapela defendatzeko aukera eman diete. Finala galdu zuten Yoldik eta Arratibelek ere bikotea osatzen dute aurten. Urbieta eta Tolosa faborito nagusien artean daude: Xabier Tolosak Biharko Izarrak txapelketa irabazi du. Durangaldeko ordezkariari dagokionez, Igor Azpiri eta Jon Lanburu elorriarrek bikotea osatuko dute eta Andoni Aldape mallabitarrak Larrañagagaz jolatu du.

Lau t'erdian iaz finala galdu zuen Bixintxo Bilbao irabazteko faboritoen artean dago. Kaiolan Durangaldeko ordezkari bakarra Aitor Arabiourrutia abadiñarra izango da. ■ J. D.

"Ikus-entzunezko bat egingo dugu txapelketako aldi denekin"

Olazarren finaletako irudiak, argazkiak eta parte hartu duten hainbat pilotariren iritziak batuko dituzte bideo batean



- Enrike Agirrebeitia
- Zaldia elkarteko-pilota eskola

Zelan ospatuko duzue 25. aldia?

Txapelketa hasi zenetik orain arteko alkate denek orogarririk bat emango diegu finalean, laguntza eskertzeko. Ikus-entzunezko bat lantzen ere bagabiltza. Txapelketako final denetako irudiak edo argazkiak jasoko ditu bideo horretan. Ondoren, herriko komertzioetan salgai ipiniko dugu prezio sinboliko batean. Gure asmoa parte hartu duten pilotariren iritziak jasotzea ere bada, Haimar Olaizola eta Juan Martinez de Irujorena, esaterako.

Izar handi bi horiek ezin izan zuten txapelketa irabazi.

Ez, biak finalurrekoetan kanporatu zituzten. Olaizolak hamazazpi urte izango zituen parte hartu zuenean. Egia esanda, gaur egun profesionalen artean goi mailan dabilzan pilotaririk gehienek parte hartu dute Olazarren. Seguruena Ives Xalaberri eta Sebastian Gonzalez izango dira salbuespen bakarrenetakoak.

Zergatik sortu zenuten Olazar txapelketa?

Frontoi berria egin zenean herrian ohitura bihurtuko zen txapelketa bat sortzea proposatu zigun orduan zinegotzi zen Jose Mari Amezuak. Orduan du sorburua Olazar pilota txapelketak.

ADITUAREN TXOKOA

Carlos Perez
Areto futbola



Urte berria, erronka berriak

Areto futbol ligak hasiera da eta Durangaldeak 17 talde izango ditu. Etorrizuneko albiste txar bat da gazte mailako taldea Elorriok bakarrik aurkeztu duela (Sasikoak eta Mallabiak ezin izan dute errepikatu).

Bigarren erregionalean Mendibeltz taldeak, Elorrio C eta Racing Tolostoa izango ditu lagun. Lehenengo erregionaleko bigarren multzoa oso interesgarria da guretzat, Durangaldeko bost talde hartuko dituelako. Horrek, hogeitaz derbi segurtatzen dizkigu. Igoeratik pausu batera geratu ondoren, Dantzari eta Abadiñoko Gazte txikiak nahi dutena lortzeko aukera daukate. Ez dira atzean geratzen Sapuberri, Elorrio B eta Gu Lagunak igo berria. Maila gorenean, aurtengoak Presion Break-en denboraldiak izan behar du; berriztarrek arerio gaxa izango dute Sasiko B taldean.

Aurten inoiz ez bezala gozatuko dugu Euskal ligan. Gure lau taldeek hamabi derbi jokatu dituzte. Iaz maila galdu zuten Sasikoak eta Elorrioko Buskantza, aulkixetean berritasunak dituztela, igotzeko faborito da. Kurutzia iazko estu-sunak ekiditen saiatuko da eta adi Abadiñoko Lagunekin, ligako sorpresa izan daitekeelako. Hirugarren mailan, Mallabiak da ordezkari bakarra eta erronka bikoitza du: kirol arlokoa eta ekonomikoa. Nahiz eta krisi sasoian gauden eta klubek zailtasun ikaragarriak dituzten aurrekontuak osatzeko, federazioak fitxen prezioak igo ditu, KPlaren oso gaitetik igo ere. Ematen du klub xumeek enbarazu egiten dutela maila gorenetan.

Erredakzioan itzulia

Castroviejo, Oiarbide eta Iturriaga ariko dira mundialean

Irailaren 16tik 23ra munduko txirindularitza txapelketa jokatu dute Herberetetan, Limburgo probintzian. Hautatzaileek asteon jakinarazi dute gizonen zein emakumeen Espainiako selekzioa nortzuk osatuko duten, eta Durangaldeak hiru ordezkari izango ditu: Eneritz Iturriaga abadiñarra (Lointek), Jonathan Castroviejo Abadiñon bizi den getxotarra (Movistar Team) eta Lourdes Oiarbide arabarra (Durangoko Beste Alde Rent a Car-Orue taldean dabil).

Aurten hamahirugarren parte-hartzea izango du Eneritz Iturriagak munduko txapelketan (horietako bat gazte mailan). Iraupen lasterketan "ahalik eta gerririk handiena" emateko asmoz joango dela dio abadiñarrak. Jonathan Castroviejo astelehenean bertan joango da Herberetara, datorren eguaztenean erlojupeko lasterketan parte hartuko duelako, Alberto Contadorrekin batera. ■ J. D.

Aurten hamahirugarren parte-hartzea izango du Eneritz Iturriagak

Baque Torneoa jokatu dute saskibaloian

Tabirako Baque saskibaloia klubak antolatzen duen Baque Torneoa asteburu honetan jokatu dute gizonen taldeek. Zapatuan finalerdiak jokatu dituzte: Tabirako Baquek Zarautz taldearen kontra jokatu du 19:00etatik aurrera. Aurretik, 17:00etan, Askartza eta Goierri taldeak izango dira aurrez aurre.

Galtzaileek hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituzte domekan, 10:00etan. Irabazleen arteko finala 12:00etan hasiko da.

Ermua izango du etsai finalean Lagun taldeak

Mallabiako futbol taldeak Zaldibarko kiroldegian antolatu duen areto futbol torneooko finalak jokatu dituzte asteburuan. Domekan, 19:00etan, Abadiñoko Lagunek Ermua Saltzaileak taldearen kontra jokatu du finala. Aurretik gainerako postuak erabakiko dituzte. Hirugarren eta laugarren postuen lehian Mallabiak eta Abadiñoko Gazte txikiak neuruko dira; bosgarren eta seigarren postuetarako, berriz, Dantzari eta Sasikoak. ■ J. D.

Lurretakok zale gazteen animoak erakarri gura ditu

Denboraldiko partidetarako Gazte Txartela sortu dute, 15 euroan

Zapatua egun historikoa izango da lurretako futbol talderantz. Iaz igoera lortuta, estreinaldia izango dute Oho-rezko mailan. Klubak sekula ez du jokatu hain maila altuan. Erandio arerio dutela (18:00etan), Larra-

Taldeari dagokionez, lurretakok zazpi jokalaria berri fitxatu ditu

kozelaiko harmailek itxura dotorea eskainiko dute. Gainera, zuzendaritzak harpidetza kanpaina abiatu du bazkideak gehitzeko.

Jose Antonio Legorburu klubeko presidentearen esanetan, 18 eta 26 urte arteko gaz-

teei zuzendutako Gazte Txartela sortu dute. Txartel horrek 15 euro balio du eta txartelagaz Larakozelaira sartu ahalko da gura duen partiduz guztietan, denboraldi osoan. Bestalde, hilaren 29an, San Miguel jaietan, plazan postu bat ipiniko dute, kluba ezagutzera emateko.

Zazpi fitzaketa

lurretakok zazpi jokalaria berri fitxatu ditu: Unai Rodriguez atezaina eta Joseba Valladares zentrala Durangoko Kulturaletik, Eneko Errazti eskuin hegalekoa Indautxutik, Xabier Infante ezker hegalekoa Abadiñotik, Ekaitz Molina erdilaria Arenasetik eta Ander Cenitagoya punta erdia Sondikatik. Urtebetez futbola utzita izan duen Patxi Onandia ere berreskuratu dute.

lurretakoren maila berean, Elorriok Loiuaren zelaian ekingo dio denboraldiari, domekan. Iaz sufritu egin zuten mailari eusteko eta aurten ere mailari eustea izango da helburua. Hurretik jarraitzekoak izango dira lurretakoren aurkako derbiak.

Lehenengo erregionalean ere asteburu honetan hasiko dute denboraldia Berrizek, Abadiñok eta Zalduak. Berrizek denboraldi bitan maila galdu du eta apurka-apurka behetik gorako bideari ekin gura dio. Iaz igoera lortu zuen Abadiñoren helburua mailan egonkortzea izango da. Zalduak denboraldia etxean hasiko du: zapatuan, 17:00etan, Basurto hartuko dute Eleizalden. ■ J. D.

Mallabiko mendi duatloirako izen ematea zabalik

Irailaren 30ean Mallabian egingo duten mendi duatloiak bigarren aldia egingo du aurten. Parte hartu gura dutenek internet bidez eman dezakete izena: www.mendiduatloia.com.

Duatloia gaza batera, gazte-txoei begirako ekimenak egingo dituzte, eta lasterketaren ostean, herri bazkarian batuko dira. Bazkarirako txartelak Bastida eta Herriko tabernetan edo e-mail bidez eros daitezke: mallabiaduatloia@hotmail.com.

Zaldaik mendi martxa antolatu du 22rako

lurretako Zaldai mendi taldeak II. Mendi Martxa antolatu du irailaren 22rako. Parte hartzaileek ibilbide biren artean aukeratu ahalko dute: 37 eta 25 kilometrokoak.

Ibilbide luzeari 07:00etan ekingo diote eta laburrari 09:00etan, lurretako plazatik. Izen-ematea Internet bidez egin ahal da, 8 euroan: www.zaldaimendialdea.org. Mendi martxaren egunean bertan ere inskriba daiteke, 10 euroan. ■ J. D.



lurretakoren eguazteneko entrenamendua Larakozelain. Kepa Aginako

TAILER KULTURALAK

IURRETA 2012-2013

MARRAZKETA ETA PINTURA	Asteartea eta osteguna: Nagusiak (14 urtetik gora) 15:30-17:30 Umeak (5-14 urte) 17:30-18:30
ESKULANAK	1. Astelehena/asteartea 17:30-19:30 2. Astelehena/asteazkena 10:00-12:00 3. Astelehena/asteartea 15:30-17:30
YOGA	1. Astelehena/asteazkena 11:30-13:00 2. Asteartea/osteguna 15:30-16:50 3. Asteartea/osteguna 17:00-18:20 4. Asteartea/osteguna 18:30-20:00
GIMNASIA MANTENIMIENTO	65 urtetik beherakoentzat. Asteartea eta osteguna: 09:15-10:15
GIMNASIA LASAIA	65 urtetik gora. 1. Asteleh./asteazk. 15:00-16:00 2. Asteleh./asteazk. 16:00-17:00 3. Asteartea/osteguna 10:15-11:15
SALOI DANTZAK	1. Astelehena eta asteazkena 17:00-18:30 2. Astelehena eta asteazkena 18:30-20:00
KARIBEKO DANTZAK	1. Ostirala 17:00-18:30 2. Ostirala 18:30-20:00
EGUR-LANKETA	1. Asteazkena 17:00-20:00
ARGAZKIGINTZA DIGITALA (azaroa-maiatza)	1. Asteazkena 18:30-20:00
JOLAS-INGELES (Haurrentzat)	1. 5 urtetik gora. Astelehena eta asteazkena 17:45-18:45
SUKALDARITZA	1. Asteartea 18:30-20:30
EUSKAL DANTZAK	1. Asteazkena 19:30-21:00
SABEL DANTZA	1. Asteartea 18:30-20:00 2. Osteguna 18:30-20:00
TAICHI	1. Asteazkena 18:00-19:30

IURRETAKO ELEIZATEKO UDALA

*Matrikula epea irailaren 18tik 24ra erroldatuentzat eta 25etik 27ra ez erroldatuentzat, Ibarretxe kultur etxean. Tel.: 94 620 03 42

AISIALDIA >

gazte gara gazte!

“Azaroan lau urteko gradu bat amaitu nuen; azarotik ez dut praktikarik egin”



Gazteek geroago eta gaitzago dute lana topatzea. Krisi sasoiaren gazteen langabeziak nabarmen egin du gora azken urteotan. Durangaldeko datuei dagokienez, 25 urtetik beherako langabezia tasa %17,4koa da. 25 urtetik 34ra bitarteko adin tartean, berriz, %16koa. Espainiako datuak kezkarriagoak dira oraindik. 25 urtetik beherako artean langabezia %52ra iritsi da. Beraz, lan egin gura duten gazteen artean, erdiak baino gehiagok ez du lanik. Aitor Isasti 28 urteko gazte durangarra da. Unibertsitateko ikasketak amaitu eta lan bila dabil.

Zein da zure lan egoera?

Momentu honetan langabezian nago. Azaroan lau urteko gradu amaitu nuen: Lan Harremanak, Leioan. Azarotik hona ez dut praktikarik egin.

Inoiz egin duzu lanik?

Elektronika ikasi nuen Maristetan eta lanean hasi nintzen. Lan istripua izan nuen eta eskua

txarto gelditu zitzaidan. Orduan, beste zeozer ikastea erabaki nuen beste lan irteera batzuk izateko.

Lana bilatzea ere lana da.

Oso txarra. Lanbideko webgunean begiratzen duzu, baina ez dago eskaintzarik, ez nire arloan behintzat. Atzo sartu nintzen eta hiru aukera daude sei hilabete zehar. Eta bata Pontevedran da. Umore txarragaz amaitzen duzu eta txarto pasatzen duzu. ABLEetan [Aldi Baterako Lan Enpresak] ere apuntatzen zarenean ez dagoela ezer esaten dizute.

Zure inguruko gazteek zein egoera bizi dute?

Ezagutzen dut kimika ikasketak dituen lagun bat tabernan lanean, eta halako kasuak asko daude. Ikasle onak izan arren, ez daukate lanik. Guri gustatzen zaiguna ikasteko esan izan digute, baina gero ez daukate irteerarik lan arloan. Inguruan askota-

riko kasuak daude. Batzuk lanean eta beste batzuk langabezian.

Hartzen ari diren neurriei zer deritzozu?

Normala da hartzen ari diren neurriak hartzea. Beraiek ez dituzte langileak defendatzen, Burgesia da defendatzen dutena. Klaseen arteko borroka da. Hori aldatzeko langile mugimendua indartu beharko genuke. Isiltzen bagara beraiek aurrera egingo dute. Historian zehar hori mila aldiz gertatu da.

Krisi egoera honek badu konponbiderik?

Sistemaren arazoa da. Kapitalismoan krisiak ziklikoak izaten direla esaten dute, baina hau orokorra da, ez dago ziklorik. 2001ean ere %20ko langabezia egon zen. Tartean lan gehiago sortu da, baina prekarioa izan da. Bost urte iraun ditu. Kapitalismoak ez du gehiagorako ematen eta garapen soziala eman behar da.

Zelan ikusten duzu etorkizuna lan arloan?

Aukera guztiak aztertzen nabil. Kanpora joatea praktikak egitera, Lanbiden eskaintzak begiratzea, kurrikulumak bota ditut...

Kanpora joango zinateke, han lana topatuko bazenu?

Hizkuntzetan oso txarra naiz, baina tira... Hizkuntza Eskolan inglesa ikasten nabil. Karrera bat izan arren, ikasten jarraitu behar duzu. Aldaketa handia izango litzateke. Momentuz ez, baina ikusi beharra dago.

Greba orokorra deitu dute sindikatuek irailaren 26rako. Ados deialdiagaz?

Greba orokorraren alde nagoen arren, erreformen aurkakoa da. Kapitalismoaren aurka joan behar gara erreformak sistema honen eraginez sortzen direlako. Sustrai hortxe dagoelakoan nago. Sindikatuek langileak kontzientziatu beharko lituzkete aldaketa horretarako. ■ J.G.

“ABLEetan ere apuntatzen zarenean ez dagoela ezer esaten dizute”

“Ez dituzte langileak defendatzen, burgesia da defendatzen dutena”

“Kapitalismoan krisiak ziklikoak direla diote, baina hau orokorra da”

laguntzaileak



ALKIMAX

Alquilamos soluciones

Eitua industrigunea
71C
48240 BERRIZ
(Bizkala)
94 682 45 50
alkimax@alkimax.net

ESKAITZA PARTIKULARRENTZAT:

